

400 pezeta.  
15 libera

# hik hasi

euskal  
heziketarako  
aldizkaria

32

Ikasle  
mugimenduak  
gaia

Musika irakasle  
euskaldunak  
elkarrizketa

Hezkuntza  
alderdien ahotan  
Gehigarria


Mahats  
bilketa  
Ekarpena

1998ko AZAROA

# EUSKAL HIZTEGI ETA ENTZIKLOPEDIAK




84-7173-001-3



84-600-6398-0




84-434-3577-8




84-7617-439-0



84-634-0187-1



84-921094-0-8



84-69638-08-5



84-600-5166-6



84-89638-09-8



84-89638-04-7

Argitaratzailea:

## XANGORIN

Zirkuitu Ibilbidea,  
2. Pabilioia. 20.160  
LASARTE-ORIA  
GIPUZKOA.

Tel: 943/ 37.15.45

Fax: 943/ 36.10.48

Lege Gordailua: SS-1001/95  
ISSN: 1135-4690

Koordinatzailea:

Jose Mari Auzmendi

Erredakzio burua:

Ainhoa Azpiroz

Erredakzio batzordea:

Itziar Barriola, Mikel Estonba,  
Arantxa Goiburu,  
Mari Karmen Irastorza,  
Kristina Mardaraz,  
Josi Oiarbide, Juanjo Otaño,  
Fito Rodriguez, Maite Saenz,  
Xabier Sarasua eta  
Arantxa Urbe.

Aholkulariak:

Imanol Agirre, Begoña Bilbao,  
Mariam Bilbatua, Xabier Isasi,  
Irene Lopez-Goñi,  
Izaskun Madariaga,  
Kepa Perez Urraza,  
Lore Erriondo,  
Lontxo Oihartzabal eta  
Pruden Sudupe.

Diseinua:

Zart

Maketazioa, fotomekanika:  
Xangorin.

Inprimategia:

AN<sup>t</sup>ZA S.A.L.

Azaleko argazkia:

Ikor Kotx  
(Goizuetako ikasleak)

Kopurua: 3.500 ale

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

IKASLE MUGIMENDUAK

15 elkarrizketa

Musika irakasle euskaldunak

21 Gehigarria

Hezkuntza alderdien ahotan

29 Ekarpena  
Mahats bilketa

Lizarrako kanpina

33 Berriak

37 Haur-jolasen abestiak II

39 Esperientzia

Picassoren "Guernica" zeramikaz

Zarauzko Salvatore Mitxelena ikastola.

41 Nazioartea

Montevideoko "Gure haurrak" programa

Izaskun Madariaga

COUNCIL OF EUROPE-  
CONSEIL DE L'EUROPE



Strasbourg  
1996ko maiatzaren 22

Aldizkari honek "aipamen berezia" jaso du Europako Kontseiluaren "lurraldeen arteko lankidetzarako sustapena" programaren barruan.

hik hasi ez ditu bere gain hartzen laguntzaileek plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.



*fundazioa*  
*fundación*

# hik hasi

## Irakasle

## euskaldunon

## aldizkaria



4.000 pezeta urtean

10 aldizkari eta prezio bereziak topaketetan eta argitaratzen ditugun gainontzeko materialetan

Zure partehartzea  
ezinbestekoa zaigu

# harpide zaitez!

**hik hasi**ren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale  
eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoaz

Izena.....1. Deitura.....  
2. Deitura .....Tel.:.....  
Helbidea .....Posta Kodea.....  
Herria.....Herrialdea.....  
Ikastetxea.....Herria.....  
IFZ .....

Aurrezki Kutxa edo Bankua

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

HARPIDETZA  
SARIAK  
(BEZ barne)

Hego Euskal Herria  
4.000 pezeta  
Ipar Euskal Herria  
160 libera

**hik hasi**

Euskal  
heziketarako  
aldizkaria

Industrialdea, 2. Pabilioia  
20.160

LASARTE-ORIA.  
GIPUZKOA

Tel: 943/ 37 15 45  
Faxa: 943/ 36 10 48

e d i t o

r i a l a

**H**

aur Eskolek gaur egungo praktikan heziketa zentzua hartzen badute ere, LOGSE legearen arabera orain arte zuten zerbitzu izaeratik hezkuntza izaera izatera pasako dira. Lehendik, Aldundi eta Udalak ziren diru iturri nagusienak. Egokitzapenaren ondorioz, urtez urte Hezkuntza Sailaren aportazioa handituz joango da haiena gutxitzen den neurrian. Honeraino teoria.

Praktikan, Gipuzkoan adibidez, duela lau urte jasotzen zituzten 160 milioi horietatik, aurten 80 jasoko dituzte eta 1999an 40. Murrizpen plana zorrotz aplikatu zaien bitartean, beste inondik ez dute eskuratuko jasotzen zuten hainakoa.

Bistan da honek guztiak kinka larrian ipini dituela EAeko Haur Eskola gehienak. Ez gara lan arazo batez soilik ari. 110 edo 120 langile horien lanpostuak arrisku biziaren egoztez gain, azken hamarkadetan jende askoren ahaleginari esker lortutakoa galtzeko arriskuan dago. Honek arazo hau gizarte guztiarena bilakatzen du. Ezin dugu ahaztu zerbitzu honek emakumeen laneratzea ahalbideratzearekin batera, emakumea gizartean dagoen lekua berreskuratze bidean ezinbesteko baliabidea dela, eta horrez

gain, euskalduntzea eta hizkuntza normalizazioan berebiziko garrantzia duela. Aldi berean, Haur Txikien heziketarako esparru berriak jorratzen ari dira.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Haur Eskolak oso egoera desberdinetan daudenez, normalizatzeko premia dute. LOGSEk berriz, 2002 urteko data markatu du 0-3 hezkuntza etapa berria finkatzeko epe bezala. Hezkuntza Sailak dio Haur Eskolak ez direla lehentasuna une honetan eta ez dela premiako gaia.

Arazo honek berandu baino lehen konponbidea behar du. Eta konponbide horretan Hezkuntza Sailak hartu behar du gidaritza. Gure Hezkuntza Sistemako txikiak desagertzeko zorian daude eta Hezkuntza Sailarentzat lehentasuna izatea egokitzen zaienerako iraganaren parte bilaka daitezke.

Euskal Hezkuntza Sistemaren denok izango gara beharrezko eta bakoitzak gauden esparrutik gure ekarpenak egin behar ditugu. Eta eskaintzeko dugun ekarpen egoki eta aberatsena eguneroko jardunean okertuz eta zuzenduz osatzen joan garen esperientzia da. Ez dirudi lehentasuna ez izan arren oinarritzko neurri batzuk hartzea bideragaitza denik. Txikiak eskolatzea eta horiekin garatu den esperientzia aberatsa desagertzen uzten baditugu alferrik izango dira geroko damuak.

*Urteetan  
landutako  
uzta  
ez utzi  
bildu gabe  
usteltzen*



Haur Txikien eskolatzea gizarte guztiaren kezka, jakinmina eta eginkizuna bilakatu da.

k r o n



## Gipuzkoako 27 Haur Eskola kezkatu

Urriaren 17an milatik gora lagun manifestatu ziren Donostiako kaletatik. Gipuzkoako Haur Eskolen koordinakundeko guraso, irakasle, haur, lagun eta sindikatuetakoko ordezkariak hartu zuten parte bertan.

Haur Eskolek Jauraritza-ren babesak eskatu zuten, Foru Aldundiak urtez urte geroz eta dirulaguntza txikiago

ematen baitu.

Hezkuntza Saileko Lurralde Ordezkaritzan eta Eusko Alkartasunaren egoitzen aurrean geldialdi bereziak egin zituzten Hezkuntza Sailak Haur Eskolei zor dien babesak eskatuz.

Mobilizazioak LAB, STEE-EILAS, ELA eta CCOO sindikatuen babesak jaso zuen.

Eskaera nagusia Hezkuntza Saileko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ongizate saileko arduradunak elkartu eta Haur Eskolei irtenbide ekonomikoa eman diezaioten.

Aldundiaren dirulaguntzak geroz eta txikiagoak direnez, Jauraritza Hezkuntza Sailak beregain hartu beharko luke, LOGSE legearen arabera sail honi baitagokio etorkizunean Haur Eskolen ardura.

Konponbiderik ez balego, egoera ongi aztertu eta aurrera begira prest agertu dira greba deialdia egiteko.

## Integrazioaren aldeko apustua

Hezkuntza arloko berrikuntza eta datuen artean, Javier Markotegi Nafarroako Hezkuntza eta Kultura kontseilariak behar bereziak dituzten ikasleen integrazioaz hitz egin du hilabete honetan. Ikasle hauek Haur eta Lehen Hezkuntza ikastetxe arruntetan egiten dituzte, eta Nafarroan Bigarren Hezkuntza ere bermatuko zaie, EAEn bezalaxe. Markotegik azaldutakoaren arabera, ikasle hauen integrazio orokorraren aldeko neurriak hartuak dituzte, integrazio hau ikasleen beharren eta inguruko errealitatearen arabera burutzeko. Honek azpiegitura eta baliabide materialak zein giza baliabideak eskatzen ditu. Hori bermatzeko DBHko ikastetxeetan baliabide horiek ezarriak daude. Helburua ikasle hauei euren gaitasunetara eta kompetentzia mailara egokitutako curriculum eskaintzea da, beti ere azken jomuga ikasle hauek gizartean eta lan munduan integratzea delarik.

“Nola aldatu, izan ere, bost mendetako etnozidua? Irudipen zital bat daukat aspaldian: ez dakigula nola gauden”. (Joxe Manuel ODRIOZOLA)

# i k a

## Seaskaren kolegio berria Ziburun

Ziburuko herrian ireki ditu atak Seaskako kolegio berriak. Jaialdi batekin eta festa giroan ospatu zen kolegioaren estreinaldia. Azpiegitura guztiz berriturik duen ikastetxe honetara joaten diren neska-mutilek ikasketak euskaraz egiteko aukera izanen dute, Seaskako gainerako zentrotan bezala. Seaskako arduradunak eta gurasoak oso pozik agertu ziren estreinaldiko jaialdian. Kolegio berri honekin euskal hezkuntzak aurrerapauso garrantzitsua eman duela adierazi zuten arduradunek.

Beste aurrerapauso bat ere bada, Iparraldeko seigarren mailako ikasleek (11 urtekoek) historia-geografiako euskarazko eskola liburua izanen dutela hemendik aurrera. Ikas-Bik argitaratu du liburua Eusko Jaurlaritzan eta Pirinio Atlantikoko departamentutik jasotako diruarekin.

Liburua frantseseko edizioaren itzulpena da, 304 orrialdekoa, koloretan eta euskaraz. Seaska, Ikas-Bi eta Euskal Haziak elkarteetako ikasleei doan eskaini zaie.

Dena dela, Ikas-Bik bere kontutik egin duen ekimen hau ez dute denek ongi ikusi. Izan ere, azken urteotan Ikas pedagogia taldea ibili da material pedagogiko kudeatzen. Talde honetan Seaska, Ikas-Bi, Euskal Haziak eta AEKko irakasleak biltzen dira. Horregatik, denek ez zaie ongi iruditu Ikas-Bik bere kabuz argitaratzea liburu hau..



## Ikasle frantsesen udazkena

Aurtengo urria ez dute berehalakoan ahaztuko lizeotako ikasle frantsesek. Ikaskuntza ertainetan bizi dituzten nekeak eta arazoak plazaratu asmoz manifestaldi jendetsuak burutu dira Parisen eta gainontzeko hiriburuetan. Urriaren 15eko manifestaldian 25.000 ikasle ibili ziren Parisko kaleetan. Baionan 2.500 bildu ziren eta Maulen 300. Urriaren 20an egin manifestaldian, berriz, 350.000 manifestari inguru kaleratu ziren estatu osoan.

Ez dira istilurik gabe iragan, gainera. Parisen 150 atxilotze inguru egon ziren azken manifestaldian eta 45 pertsona berehala auzipetu zituzten.

Ikasle hauek ikasteko baldintza hobek eta baliabide gehiago eskatzeko irten dira karriketara. Lizeotako ikasleen koordinazio nazionala eratu dute eta Claude Allegre Hezkuntza ministroarekin egotea lortu dute protestaldien ondoren. Ministroarekin izandako bileran, honek aurkeztu duen erreforma plagintzaren berri jaso zuten.

Plagintza hau lau ardatzetan oinarritzen da: lizeotan demokrazia sustertzea; lizeoaren baitan hobeki bizitzea; etorkizunerako lizeoaren eraikitzea eta pedagogia arloko erreformak bultzatzea. Neurri hauek aurrera eramateko lau miliar liberako mailegu bat jarriko da Eskualde Kontseiluaren eskuera, hauen gain baitago ikastetxeen eraikitzea, eraberritzea eta mantenua. Horrekin batera, 14.000 lanpostu berri sortuko dira lizeoko ikasleen artean animazio lanak egiteko, ikasleei laguntzeko, diziplina zerbait bermatzeko eta ikastetxeetako bortizkeria eragozteko.

Dena dela, klaseetako ikasle gehiegikeriari ez zaio berehalako erantzunik emango, nahiz eta 1999. ikasturtetik aurrera 35 ikasle baino gehiagoko talderik ez izateko konpromezua hartu duen ministroak.

# GAIA

# Ikasle Mu



**I**kastetxeetako funtsezko lehengaia ikasleria da, gelak betetzen dituzten neska-mutilak. Ikastera etortzen dira eskolara, baina ez ardiak bezala buru makur eta mutu. Garai eta toki desberdinetan dinamikoa eta eraldatzailea izan den kolektiboa da ikasleria, ertainetan eta unibertsitatean batez ere. Ikasle mugimenduari errepasso bat ematearekin batera, Euskal Herria osoan zabalpena duen Ikasle Abertzaleak erakundea gertutik ezagutuko dugu bere 10. urteurrena aitzaki harturik.



# gimendua k

Ikasle mugimenduaren bilakaera aztertzen hasita, nahiko nahasia dela konturatu gara. Konplexua da ikasle mugimendu guztiak maila berean jartzea, bakoitzaren hedapena eta lan esparrua ez baitira berdinak. Gaur egun Euskal Herri mailan eta ikastetxe eta fakultate guztietan zabaldua dauden taldeak lau direla esan daiteke: Ikasle Abertzaleak, Duina ikasle koordinadora, Jarrai irakaskuntza eta Euskal Adarra. Hauez gain talde konkrituak eta lokalak daude: Abarrots euskara taldea Opuseko unibertsitatean, 7 Baietz! Leioako unibertsitatean, Emanagaitz emakume taldea, Lurgorri EHUko hiru kanpusetan, presoen aldeko taldeak, ikastetxeetako aldizkariak...

## Hasierako erroak hartuz

Gaur egungo egoera eta ikasle mugimendua hobeto ulertzeko atzera joko dugu, mugimenduaren sorrera garaia-tara.

Ikasle mugimenduaren erronka nagusiak gizarte mailako arazoak eta irakaskuntza ereduaren inguruko borroka izan dira. II. Mundu Gerrako Txekoslovakiatik guda osteko Hego Amerikara bitartean, eta 68ko Parisetik pasaz, borroka horietan murgildurik egon da. Euskal Herria ez da salbuespena izan. Hemen ere ikasleria Euskal Herriko subiranotasunaren aldeko mugimenduetan murgildurik egon baita Errepublikara garaian zein Fran-kismo gordinenean.

80ko hamarkadan borroka ezberdinak piztu ziren ikasle mugimendu

jendetsua sortuz. Euskal Herrikoek izaera propioa izango dute. 1985etik 88ra ikasle abertzaleen talde autonomoak sortzen dira eta ikasle arazoak ikuspegi nazional eta aurrerakoi bate-tik jorratzeko asmoz jaiotzen dira.

1987. urtean ikasle erakunde baten beharra zabaltzen doa eta OMEV (Organización de Masas de Estudiantes Vasca) sortzen da antolakuntza nahi horren lehenengo adierazpen bezala. Erakunde honetan aurreko urteetako borroketan egondako jende ezberdina biltzen da (Ikasle Abertzale-

“80ko  
hamarkadan  
borroka  
desberdinak  
piztu ziren  
ikasle  
mugimendu  
jendetsua  
sortuz”

ak taldeak, koordinadorak, ezker abertzaleko jendea...). OMEVen ardatz nagusienak bi ziren:

a) Erakunde antolatu eta iraunkor baten beharra.

b) Proiektu propio eta estratejiko baten beharra (euskal eskola publikoa).

1988an OMEVen baitan ematen den eztabaiden ondorioz eta Gazte Mugimenduko aportazioekin, Ikasle Abertzaleak erakunde jaiotzen.

IA bezala ezagutzen den Ikasle Abertzaleak koordinadora ikasle erakunde nazional abertzale, aurrerakoi eta masen erakunde bezala sortzen da. Bere asmoa proiektu propio bat eraikitzearen alde eta ikasleen defentsan lan egitea da. Gaur egun Hego Euskal Herri osoan zabaldu dago, bai ertainetan eta bai unibertsitatean.

10 urteotako ibilbideak gora-behera handiak izan ditu. Duela hiru urte II. Kongresua ospatu zuen IAk eta etapa berri bati hasiera eman zitzaion. Azken urteotako lan ildoak ezarri ziren bertan eta irakaskuntza eredu ezberdin baten aldeko apustua egin zen.

Gaur egun IAren helburu eta egin-kizunak II. Kongresu horretan finkaturiko norabidean kokatzen dira, Euskal Eskola Publiko eta Nazionalaren garapenean, alegia. Eguneroko lanaren oinarrian daude euskaraz ikasteko eskubidea, euskal izaera nazionala bermatuko duen irakaskuntza, euskal edukien garapena, lurraldetasuna, funtzionamendu demokratikoa eta ikasle-en eskubideen bermatzea eta denona izango den irakaskuntza.

# Ikasle Abertzaleak:

## 10. urteurrenean indarberriturik dator



**Igor ARROYO**  
IAko bozeramailea

**Zein abiapuntu hartu zenuten orain dela hiru urte ospatu zenuen kongresuan?**

IA noraezean zegoela ikusi, proiektu orokorra lan ildoetan garatzeko beharra zegoela, bestela fetxismoan erortzen baikinen. Beraz, horri amaiera eman behar geniola oharturik, benetan IA tresna erabilkor bihurtu behar genuela erabaki genuen. Irakaskuntza proiektuaz teorizazioak egiteaz gain, helburuak lortzeko ekintzak finkatu behar genituen.

**Zein helburu eta ekintza finkatu zenituzten?**

Lehenengo eta behin, ikasleria mugitzea eta astintzea beharrezkoa zela ikusi genuen. Helburu nagusia irakaskuntza proiektu propio bat egitea izanik, ikasleria osoaren lana zela argi geneukan. Baina, hori lortzeko milaka ekintza eta lan daudenez, taktikoki aukeraketa bat egin genuen. Horrela

bi esparru finkatu genituen: autoritarismoa eta euskara eta edukiak. Bakoitza ikasturte batean lantzeko plangintza egin genuen. Horrela, orain dela hiru urte autoritarismoa landu genuen, duela bi urte euskara eta edukia, iaz ikastetxe bakoitzeko lana eta dinamika bultzatu genituen eta aurten horrekin jarraitu arren indarrak bateratzeko ahalegina egingo dugu.

**Hasieratik abiatu eta autoritarismoaren gaiari helduz, zergatik hau lehenengoa?**

Lehenengo eta behin egoeraren larritasunagatik. Ikasleok muga asko genituela ohartu ginen: irakasleen aldetik izugarritzko kontrola egindako guztia gurasoei esaten zietelarik, grebarako eskubiderik eza, kartelak jartzeko eskubiderik eza, asanbladak egiteko ukapena eta abar.

Horrela, ikasle kontzientzia pizteko autoritarismoak hainbat erraztasun ematen zizkigun, ikastetxe guztietan hedatutako zerbait zelako. Ikasle guztiek ikusten zuten zerbait zen, zuzenean eragiten ziena eta egoera hori aldatzeko aukerak ematen zituen.

**Zer egin zenuten, orduan, "Autoritarismoari kaña" emateko?**

Ikasle fronte oso bat ireki genuen arazoaz eta egoeraz kontzientziaz lortuz. Fronte horren barruko tresna garrantzitsu bat taula errebendikatiboa izan zen. Ikastetxeetan ematen ziren ekintza eta jarrera autoritarioak zerrendatu genituen taula horretan, eta horien aurrean geure oinarrizko eskubideak aldarrikatzeko zer egin genezakeen azaldu. Horrela, taulako edukiak lantzen hasi ginen zentro bakoitzean.

**Nolako ondorioak eman zituen?**

Lehenengo ondorioa ikasleriaren berpiztea izan zen. Autoritarismoaren aurrean kontzientzia hartzeak eta besteak ere antzeko egoeran zeudela ikustek ikasleria mugi arazi egin zuen.

Honen ondotik, garaipen konkretuak lortu genituen, hots, autoritarismoaren inguruko hainbat borrokaren ondorioz fruituak lortu genituen. Adibidez, UPVko hiru espediente politiko kendu egin ziren egindako mobilizazioei esker, NUPen errektoreak egutegi berria antidemokratikoki ezarri zuen eta ikasleen mobilizazioen ondorioz kendu egin zen eta ikastetxe bakoitzean ere lorpen batzuk egin ziren.

Honek guztiak kontraesanak sortzeko ere balio izan zuen. Irakaskuntzarako konpromezua zutenengan kontraesanak sortu zituen eta hori positiboa dela uste dugu, azken finean jarrera autoritarioak birplanteatzen baitira.

**Gutxinaka, autoritarismoa borroka nagusi izatetik euskara eta edukiek hartu zuten nagusitasuna. Zergatik?**

Autoritarismoarekin txokeak sortu genituen, baina beste maila bateko eraikuntza nahi genuen. Euskara eta edukien gaiari adarretatik heldu behar geniola ikusi genuelako, bere garaian autoritarismoarekin egin bezala. Ikuspegi horretatik, euskara beti hor egon zela konturatu ginen, baina ez zela benetako aurrerapausorik ematen. Badirudi euskara normalizaturik dagoela irakaskuntzan, zerbait polita eta atsegina dela. Baina hori irudia da, benetan ez baitago normalizaturik. Euskara borroka bezala planteatu behar genuen, eta ez eskaera bezala.

Ondorioz, tentsionatu egin behar

# GAIA Ikasle Mugimenduak

genuela ikusi genuen. Ezin dugu onartu UPVn euskal adar gutxi egotea, Lanbide Heziketan ia D eredurik ez egotea, Nafarroako Euskararen legea, euskararen erabilpena eta kalitatea... Egoera hau aldatzeko hainbat ekintza eta lan burutu genituen eta garbiena unibertsitatean Euskal Adarrak eramandako borroka da.

## **Eta edukiei dagokionez, zer aztertu zenuten?**

Edukien arloan ordura arte kontrainformazioa landu genuen hitzaldiak eta abar eginez. Baina hori baino lan sakonagoa egin behar zela ikusi genuen. Horrela, egungo irakaskuntzaren edukiak aztertu genituen: zer-nolako edukiak irakasten dizkiguten, nora bideratuta dauden, zer-nolako pedagogiarekin irakasten zaizkigun, zer-nolako pertsonak sortu nahi dituzten eta abar. Azterketa hau egin ostean, LOGSEn aipatzen diren hitz-poto-loak (kritikotasuna lantzea...) eta errealitatea bat ez zetoze ikusi genuen.

## **Nolako edukiak direla esango zenuke?**

Bi arlotan banatzen ditugu edukiak. Alde batetik, egungo sistema kapitalistari lotutako baloreak gailentzen dira: lehiakortasuna, produktibitatea... Eta bestetik, Espainiari lotutako edukiak dira, helburua Euskal Herria integratzea eta homogeneizatzea delarik. Horretarako irakaskuntza erabili nahi dute, belaunaldi berriak espainolizatzeko eta kate hori sustraitik apurtzeko.

## **Zein neurri proposatzen dituzue honen aurrean?**

Hiru bide daudela deritzogu:

1- Erantzuna. Ikastetxe eta irakasle batzuk sekulakoak esaten dituzte, eta badirudi normala dela. Zentro euskaldunen aurkako erasoaldi mediatikoa ere hor dago. Honen aurrean erantzun

na ematea da eginkizun bat.

2- Barrutik lan egitea. Klaseko edukiak, testuliburuak eta abar alda daitezzen proposatzea.

3- Autogestioa. Irakaskuntza markoa aldatzeko ikasleok gaurdanik hasia behar dugu geure buruak heitzeko tresna propioak autogestionatzen, Euskal Herrian eta Euskal Herrirako ikasteko, hain zuzen ere.

## **Orain dela bi urteko hausnarretak dira hauek. Iaz jarraipenik izan al zuten?**

Bai, baina iaz beste zabalpen bat eman genien. Gauza asko definituta zeudela ikusi genuen, baina hori aurrera eramatea falta zen. Horretarako ikasleria guztia-rengana zabaldu beharra zegoen eta hori izan zen iazko lana. Irakaskuntzako markoa aldatzeko ikastetxe eta fakultate bakoitzean egin behar da lana, bakoitzaren egoera errealaren arabera. Guk definitzen dugun irakaskuntza eredura heltzeko modu bakarra ikastetxe bakoitzean urratsak ematea da.

**Aurtengo erronkak, berriz, non-**

**“Guk definitzen dugun irakaskuntza eredura heltzeko modu bakarra ikastetxe bakoitzean urratsak ematea da”**



## dik nora bideratuko dira?

Pasa den urtean lan esparrua zabaldu egin genuen eta ikastetxe bakoitzaren lana azpimarratu. Ondorioz, zentro bakoitza bere kasa ibili zen. Esparrua ez dugula hainbeste zabaldu behar pentsatu dugu aurten. Hau da, nahiz eta zentro bakoitzak bere ikastetxean egin lana, guztiok koordinatuta egon behar dugula, norabide berean mugitu behar dugula. Beraz, aurtengo lehen-tasuna uholde bat sortzea da, euskara eta edukietan zentratutako uholdea.

## Nolako ura ekarriko du uholde horrek? Zein da osatu duzuen plagintza?

Uholde honen barruan lau klabe aipatzen ditugu:

1- Ikasle Abertzaleak-en harrotasuna (ez harrokeria) eta antolatze beharra piztea.

2- Espainolizazioari kaña ematea. Eta horren barruan agente espainolisten aurkako dinamika piztea, eduki espainolak murrizten joatea...

3- Eraikuntza klabe batean lan egitea euskara eta edukien edo curriculumaren inguruan fruituak lortzeko.

4- Elkarlana. Lan handiena ikasleok egin behar badugu ere, irakaskuntzako eta gizarteko beste taldeak ere inplikatu behar ditugu lan honetan.

## Azken puntu honi heldurik, nolako harremana duzue beste taldeekin?

Maila nazionalean nahiko jorratzen ari gara irakaskuntzako beste sektoreekiko harremana. Dena dela guk beti esan ohi dugu harreman horiek gauza konkretuen inguruan garatu behar direla. Esaterako, A ereduaren alde gaude edo ez, Lanbide Heziketa euskalduntzearen alde inplikatu gara edo ez...

# 10. urteurrena



Ikasle Abertzaleak erakundea 1988. urtean sortua izanik, aurten 10 urte betetzen ditu. Hamar urteko ibilbidea egin ondoren, hori gogoratu eta aurrera ekiteko indarrez daude bertako kideak. Ez dute, ordea, ospakizun handirik egiteko asmorik, ez baitira nostalgia zaleak. 10. urteurrena gaur egun IAren apustua berritzeko prozesuan tresna bat bezala ulertu dute, sinbologia bat duen tresna, baina tresna, azken finean.

Egindako lana aldarrikatzeko asmoa dute, azken batean 10 urteotan ikasleria ilusioz beterik lanean aritu delako. Lan horrek ondorio garbiak eman ditu praktikan eta horrek borrokan aritzearen zilegitasuna ematen duela irizten diote IAko kideek. Orain artekoa aldarrikatu beharra dagoela uste dute, beraz, baina beti aurrera begira, hori argi daukate. Eta noski, euskal gizartean egun bizi den egoera itxaropentsura moldatuz. Eraikuntza, elkarlana eta erantzuna izango dira IAren lanaren zutabe.

Horrela, 10. urteurrenaren muina ikasturte honetako plangintza izango da. Bertan uztarturik garatuko da, urteko lanari loturik. Horren aritik, hiru helburu nagusi izango ditu:

1- Ikasle abertzaleen kontzientzia suspertzea.

2- Ikasle Abertzaleak tresna erabilgarria eta eraginkorra dela aldarrikatzea.

3- Egungo egoerari buelta eman beharra dagoela azpimarratzea ikastetxe bakoitzeko lan konkretua indartuz, batez ere edukien eta euskararen arloan.

Helburu hauek gogoan izanez ideia batzuk garatu eta azpimarratu nahi izan dituzte, horiek izango direlarik 10. urteurren honen ardatz. Honoko hauek dira aipatu ideiak:

## Ikasle abertzaleak gara

Ikasle hauek argi daukate inoiz baino harrotasun gehiagoz esan behar dutela ikasle abertzaleak direla. Espainolizazio saiakeren aurrean beraien borondatea tinkoa da, ikasle abertzaleak izaten jarraituko dute guztiaren gainetik. Nahi, behar, asmo eta ilusio batzuk dituzte, eta kolektibo bezala antolatuta jarraituko dute horiei erantzun ahal izateko. Era berean, gizarteko auzietan zein euskal irakaskuntza eraikitze ahaleginetan parte hartzen jarraituko dute. Argi daukate euren beharrak asetuko dituen euskal eskola

publikoa, edo nazionala, edo dena delakoa nahi dutela.

### Dagoenak ez digu balio

“Egungo irakaskuntza estatu espainiar eta frantziarren tresna da Euskal Herriko beunaldi berriak desnazionalizatu eta frantses eta espainol futbolzale-zintzo-langile-prestua bihurtzeko. Ez digute inoiz galdetu zer nahi dugun eta jada ez zaigu axola. 10 urtean zehar erakutsi dugu ez garela limosna eske ibiliko”. Badakite egungo markoak ez diela balio eta berau kolokan jartzeko indarra daukatela.

### Egungo markoa gainditzeko beharra dugu eta baita grinak ere

Egungo markoa gainditu eta irakaskuntza eredu euskaldun, aurrerakoi eta demokratikorantz urratsak eman behar dituztela berbaieztatzen dute. Orain dela 10 urte ekindako bideari jarraituz ikastetxe eta fakultate guztietan euskara, autoritarismoa edota edukien inguruko lanarekin segitzeko asmo tinkoa daukate.

Horrekin batera, espainolizazioari kaña eman behar zaiola diote. Espainolizazio bezala zera ulertzen dute: euskara eta euskal nortasunaren aurka bideratutako ahalegin antolatua, irakaskuntzan kasu honetan, belaunaldi berriak desnazionalizatzeko helburua daukana. Espainolizazioaren agente bezala, berriz, euskararen eta euskal nortasunaren ukapena suposatzen duten auziak ulertzen dituzte. Maila ezberdineko agenteak eta egoerak daude, eta bakoitzari bere neurriko erantzuna eman behar zaio.

### Ikastetxeak irauli eta eraiki egin behar ditugu

Erantzunik hoberena eraikitzea da. IAk bere ildoak definituak ditu (bost orain arte: euskara, edukia, autoritarismoa, lurraldetasuna eta sozioekonomia) eta bere tresnak ere baditu. Beraz, euskal irakaskuntza eraikitzen jarraitu behar dutela azpimarratu nahi dute, batez ere euskara eta edukiei garrantzia emanez. Eraikuntza hori bi maila-

# GAIA Ikasle Mugimenduak

tan definitu dute. Batetik, egungo irakaskuntzan garaipenak lortuz: euskaraz ikasteko eskubidea errespetatua izan dadin lortuz, ikastetxeak euskaraz funtziona dezaten lortuz, ematen diren edukiak Euskal Herriaren ingurukoak izan daitezen lortuz... Eta bestetik, euren behar propioak autogestionatuz.

Hori guztia ikastetxeetan eraman behar da aurrera. Eta daukagun arma ikasturteko plangintza da.

### Ikasle Abertzaleak da ikasle abertzaleon tresna

Argi utzi nahi dute Ikasle Abertzaleak euskal ikasleria abertzale eta aurrerakoiak bere beharrak asetu eta eredu propio bat garatzeko eraturiko tresna dela. Eraginkorra, baliogarria eta guztiena den tresna. 10 urte eta gero egunerokotasun osoa duen tresna eta mahai gainean erronka berriak dituena.

### Ideietatik praktikara

Urteko plangintza eta zeregina ez da ideietan soilik gelditzen. Garrantzitsuena eta emankorra praktikak eta

“Ikasturte honetako plangintza eta 10. urteurrena uztarturik daude guztiz”





eguneroko lanak ekartzen du eta hori ere bideratu du IAK. Aipatu ideiak ikastetxeetan eta fakultateetan garatu behar dira, bakoitzean nahi eta behar den ikastetxe eredurantz urratsak emanez.

IAko kideen hitzetan, asko dira egin daitezkeen lanak, baina euskara eta euskal nortasuna dira oraingo apustu taktikoak. Euskara eta edukien inguruan bildu behar dira indarrak eta horretarako ikastetxe eta fakultate bakoitzean jorra daitezkeen alderdiak aurreikusi dituzte. Hauek dira euren buruei ezarri dizkien lan ildoak:

### 1- Euskaraz bizi. Ikasleon hitzarmena

Ikastetxe eta fakultateetan ikasleok euskaraz bizitzeko konpromezua jaso eta praktikan jarri behar dugu. Horretarako zentro bakoitzean diseinu bat egin behar da. Bertan hainbat gauza jaso behar dira: euskararen erabilpenaren azterketa, ikastetxean eztaida zabaldu, ikasleen sentsibiltatea eta konpromezua bilatu, giro euskalduna sortu, aldizkari euskaldunak bultzatu eta abar.

### 2- Euskaraz bizitzeko eskubidea

Euskaraz bizitzeko erabaki hori urratua izan ez dadin bermatu behar dugu. Horretarako, ikastetxeen funtzionamendua eta barne-harreman

guztiak euskaraz garatu daitezkeen bermatu behar dugu: barne ohar eta iragarki guztiak euskaraz, ikasleekin harremanak dituzten langileak euskaldunak, unibertsitatean zerbitzu guztiak euskaraz egon daitezkeen eskatu eta abar.

### 3- Euskaraz ikasteko eskubidea

Euskaraz ikasteko eskubidea toki guztietan berma dadin eskatzen dugu: lanbide heziketan eta unibertsitatean eta eskaria dagoen auzo eta herri guztietan. Era berean, eskaria dagoen zentro guztietan DBH D ereduan eskaintzen den bezala DOBHrekin berdin jokatzea eskatzen dugu.

### 4- Euskara kalitatez ikasteko eskubidea

Euskaraz ikastea gauza bat da, eta baldintza onetan egitea beste bat. Euskaraz ikasteaz gain, kalitatez ikasi nahi dugu. Euskara ondo ez dakien irakaslerik ez dugu onartzen, euskarazko testugintza suspertzea eskatzen dugu eta euskarazko material egokia egotea.

### 5- Euskal Herria ikasi: autogestionatuz

Gure bitarteko propioak autogestio-

**“Eraikuntza, elkarlana eta erantzuna dira IAren lanaren zutabe”**

natu behar ditugu Euskal Herriak izango dituen beharrei irtenbidea emateko. Zer egin dezakegu? Liburutegi alternatiboak osatu, lantaldeak osatu, intereseko gaiak bilatu, Euskal Herriako errealitatea, historia eta kulturarekin erlazionatuta dauden gaidak jorratu eta abar.

### 6- Euskal Herria ikasi: testuliburu espainolik ez

Ezin ditugu testuliburu espainolak edo frantsesak onartu. Horiek identifikatu eta sentsibilizazio lan bat egin behar dugu horiek erabiltzeak zer suposatzen duen azalduz. Irakasle eta ikastetxeen aurrean liburu horiekiko intsumisio jarrera agertu behar dugu. Liburuez gain, Espainiako eta Frantziako mapak, sinboloak eta bestelakoak ere ikastetxeetatik at egotea lortu behar dugu. EAEko, Nafarroako eta Biarnoko maparik ez dugu onartu behar.

### 7- Euskal Herria ikasi: klaseko edukia Euskal Herriaren ingurukoak

Irakasle jatorrekin elkarlana planteatu dezakegu Euskal Herriko edukia lantzeko. Adibidez, Historian, Literaturan, Geografian... Etika eta Filosofiako klaseak ere aprobetxagarriak dira intereseko gaiak jorratzeko.

Edukiak aldatzearekin batera, klasean aktiboak izan behar dugu ikasleok.

### 8- Ikastetxe eta irakasle espainolei kaña

Irakasle eta ikastetxe faxisten aurrean beraien jarrerak dohainik ez ateratzea lortu behar dugu.

### Ospakizunak eta ekintzak

Ekimen desberdinak antolatu dituzte ikastetxe eta fakultateetan 10 urte hauetako historia berreskuratu asmoz eta aurrera begirako erronkak mahai gainean jarri. Horrela, azaroaren 14ean Diman ekitaldi nazionala burutuko du IAK. Ospakizuna izateaz gain, aurrera begirako berbaieztapen bat izango da. Ilusioa eta indarrak batzeko gune garrantzitsua bilakatuko da.

# e *lkarriketa*

## MUSIKA IRAKASLE EUSKALDUNAK



*Nolakoa izan behar du euskal hiritar musikalak? Galdera hori erantzuten hasi nahi dugu*



Jose Inazio LOPEZ DE LUZURIAGA, Josean RAZKIN eta Amaia ETXEBESTE  
Musika irakasleen topaketen bultzatzaileak

# MUSIKA IRAKASLE EUSKALDUNAK



**“*Irakasle bakoitzak bere material propioa egiten du eta hori ondo dago. Baina beste irakasleek ezagutuko balute, hobe*”**

***Jose Inazio Lopez de Luzuriaga***

**U**rtarrilaren 22an Musika Irakasle Euskaldunen Lehenengo Topaketa burutuko da Donostian. Bere xede nagusia musika irakasleak elkartzea eta dituzten arazo eta hutsunei irtenbideak bilatzen hastea da. Era berean, euskal curriculum musikala egiten hasteko asmoa ere badute. Euskal Kantuzaleen Elkartearen babesean bildu den musika irakasle talde bat da proiektu berri honen bultzatzailea. Horien artean Donostiako Goi Mailako Kontserbatorioko Jose Inazio Lopez de Luzuriaga, Donostiako Herri Ametsa ikastolako Josean Razkin eta Oiartzungo Elizalde eskola publikoko Amaia Etxebeste daude, gurekin solasean aritu direnak, hain zuzen ere.

**Nolatan sortu da Musika Irakasle Euskaldunen Lehenengo Topaketa hau egiteko ideia?**

**Jose Inazio Lopez de Luzuriaga.**- Egia esan, aspaldiko proiektua da. Duela 8 edo 9 urte hasi ginen biltzen. Musika irakaskuntzaren inguruan ematen zen euskararen bazterketa ikusita, zerbait egin behar zela ikusi genuen. Eta zerbait horretan garrantzitsua zela ez soilik euskara bultzatzea, baita euskaraz edo erdaraz irakasten gundenaren mamia lantzea ere. Beraz, hori izan zen motibo nagusia eta abiapuntua.

**Zein biltzen zineten?**

**Jose Inazio.**- Batez ere kontserbatoriotik pasatako jendea zen eta ez Magisteritza eskolatik. Gehienbat musikariak ziren eta ez musika irakasleak. Batzuk bazebiltzan irakaskuntzan, baina musika eta dantza eskoletan, kontserbatorioetan eta abar.

Orduan saiatu ginen kontserbatorioan, ofizialki, zerbait egiten, baina ez genuen ezer lortu.

Gauzak horrela, ni pertsonalki Euskal Kantuzaleen Elkartearekin jarri nintzen harremanetan orain dela



**Jose Inazio LOPEZ DE LUZURIAGA**  
Donostiako Goi Kontserbatorioko irakaslea



urtebete. Ordura arte kantu txapelketak antolatzen zituen Elkartek, eta nik beste batzorde edo talde paralelo bat eratzea proposatu nien: pedagogia musikalaz eta horren inguruan sortuko ziren bestelako ekimenez arduratu zen batzordea. Ondorioz, gure asmoa musika irakaskuntza nola dagoen aztertzea da eta euskal hiritar musikalak nolako izan behar duen definitzea.

**Orain, ordea, batzorde honek hezkuntza orokorreko irakasleen topagune izan nahi du. Nola eman duzue kontserbatoriotik ikastetxeetarako salto hori?**

**Jose Inazio.**- Zerbait egiten hasi ginenean, Kontserbatorioaz hitz egiten hasi aurretik maila baxuagoan zeuden irakaskuntzako beste erakundeekin harremanetan jarri behar zela konturatu ginen. Orduan, musika eta dantza eskoletara jotzea pentsatu genuen. Baina eskola hauek diseinatzeko ere orokorragoak diren beste ikaskuntzak aztertu behar genituela konturatu ginen. Horrela, goi mailako kontserbatoriotik hasi eta eskolara edo irakaskuntza orokorrera iritsi gara.

**Behin irakaskuntza orokorrean zentratuta, zer ikusi duzue? Zerekin egin duzue topo?**

**Josean Razkin.**- Eskoletako musika irakasleon errealitatearekin. Hau da, irakasleon formakuntza ezberdinarekin, eta noraezarekin. Bakoitza bere kasa ibiltzen gara, ahal dugun moduan eta bururatzen zaiguna egiten. Kontuan izan behar da musika irakasleok oso isolatuta gaudela gure eskoletan. Gaur egun espezialistak ateratzen ari dira, baina orain arte kasu gehienetan gelako irakasleak ginen, tutoreak edo beste espezialitate jakin batekoak. Egun batean musika irakasteko esan zitzaigun, agian, nire kasuan adibidez, txistua jotzen nekielako.



Orduan, bakarrik ikusten duzu zeure burua eta inork ez dizu esaten musika zertarako den, zein helbururekin irakatsi behar den... Nik bederatzi urte daramatzat Herri Ametsa ikastolan musika irakasten, eta askotan ez daukat garbi zer den azken finean lortu behar dudana hori. Agian, kontserbatoriotik datorren norbaitek formakuntza ona edukiko du, baina formakuntza eskaseko jendea ere badago. Eta denok, neurri batean edo bestean, bakarrik gaude.

**Jose Inazio.**- Formakuntza eskasia hori pedagogia alorrean ikusten dut nik, batez ere. Alegia, musikarion artean eta kontserbatoriotik ateratzen direnen artean, eskasia pedagogia eta psikologia aldetik nabari da.

**Josean.**- Gure kasuan, berriz, gehienok magisteritza eskolatik atera gara eta prestakuntza falta handiena musika alorrean edo pedagogia musikalean daukagula esango nuke.

**Orduan, ez dago batere argi musika klasean zer landu behar den?**

**Amalia Etxebeste.**- Ez, ez dago. Gainera, musikan lantzeko gauza pila bat biltzen zaizkigu eta bakoitzak joera bat har dezake. Musikaren hizkuntzan edo mintzairan zentratzen denak notak, interbaloak, neurketa...

irakurketa edo solfeo akademikoa landuko du. Beste batek musikaren bidez herri kultura landu behar dela uste badu, kanta herrikoiei ekingo die. Beste batek musikak psikomotrizitatea eta mugimendua lantzeko aukera polita ematen duela pentsatuko du eta bide horretatik bideratuko du bere lana. Beste batek entzunaldiak landuko ditu haurraren ikuspegi musiko kulturala aberasteko egokia dela pentsatuz.

Bakoitzak ahal duena eta egokiena iruditzen zaiona egiten du. Azken finean, gelan, gu eta haurrak gaude. Oso gutxitan hitz egiten dugu aldameneko irakaslearekin eta ez dakigu hark bere hurrekin zer egiten duen ere.

**Josean.**- Horri ikastetxe bakoitzeko errealitate desberdina gehitu behar zaio. Zentro batzutan astean bi saio ematen dira eta beste batzutan bakarra. Bakoitzak interesatzen zaiona irakasten du denbora apur horretan.

**Amalia.**-Noski, gela bakoitzean ere, errealitate anitzarekin egiten dugu topo. Haur batzuk musika eskoletara edo kontserbatoriora joaten dira eta musika hizkuntza soilik lantzen baduzu, aspertu egiten dira.

**Egoera eta errealitate desberdinekin batera, zein eragin du irakasleon prestakuntzak?**



“*Inguruko irakasleekin biltzen naiz eta denok gauza bara komentatzen dugu, bakarrik gaudela*”

*Amaia  
Etxebeste*



**Josean RAZKIN**

Herri Ametsa (Donostia) ikastolako musika irakaslea

**Jose Inazio.**- Eragina izugarria da. Musikarion artean oso ohikoa da adibidez txistua jotzen baldin baduzu, zure gelan txistua ezinbesteko tresna bilakatzea. Dantzari baldin bazara, dantza bilakatzen da musika irakaskuntzaren alderdi nagusia. Edo pianojolea, gitarrajolea eta abar baldin bazara, beste hainbeste.

Denok gizakiak gara eta gure ibilbideak eragina du gure osaketa profesionalean, baina hori neutralizatu egin behar da ahal den neurrian.

**Material aldetik hutsunerik nabaritzen al duzue?**

**Josean.**- Beno, egia esan materiala eta programaketak badaude, baina egokitu eta eguneratu egin behar dira.

**Amaia.**- Nik uste dut materiala badagoela, baina askotan alde batetik eta bestetik hartuz ibili behar izaten dugu. Dena dela, nik bost urte daromatzat musika irakasle bezala eta seguru nago ezagutzen ez dudana material ugari egongo dela.

**Josean.**- Agian beste errealitate bat musika irakasleen artean dagoen material guztia aztertzeke denborarik eza da.

**Materiala badago, beraz. Orduan, arazoa zer da, sakabanatuta dagoela?**

**Jose Inazio.**- Hain juxtu, arazo nagusia sakabanaketa eta ezezagutzat dira. Elkarren berri ez izatea, alegia. Zeren norberak egindako material asko baitago, baina zabaldu gabe. Zergatik? Askotan mesfidantzagatik, jarrera psikologiko itxiagatik. “Hau nire materialtxoa da eta niretzat”. Ziurtasun pertsonal gutxiagatik ere izan liteke edo auskalo zein beste arrazoigatik. Kontua da irakasle bakoitzak bere material propioa egiten duela. Hori ondo dago, baina beste irakasleek ezagutuko balute, hobe.

**Irakasleon artean ez al zarete elkartzeko materiala trukatzeko eta elkarren berri izateko?**

**Amaia.**- Bai, biltzen gara, baina ingurukoekin bakarrik. Ni, adibidez, Oiartzun inguruko irakasleekin biltzen naiz eta denok gauza bera komentatzen dugu, bakarrik gaudela. Ez dakigu ondo gabiltzan, egiten duguna egokiena den... Beharra sentitzen dugulako biltzen gara.

**Josean.**- Bai, beharra oso argia da eta mugimendua badago. Ni, esatera-

ko, Zurriolako, Martuteneko eta Andoaingo ikastolako musika irakasleekin biltzen naiz. Hainbat urte daramagu programaketa bat egiten eta material ugari aztertu dugu alderdi ezberdinetatik: dantza, musika mintzaira, entzunaldiak, txirula, musika tresna autoktonoak eta klasiakoak...

Nik uste dut jendea elkartzen hasi dela, baina elkarren berri jakitea falta zaigu. Bestela, askotan lana errepikatzen ariko gara eta hori ez da kontua. Zerbait egin baldin bada, zergatik errepikatu? Goazen hura zabaltzera.

**Sakabanaketa eta elkar ez ezagutze honi irtenbidea emateko asmoz antolatu duzue "Musika Irakasle Euskaldunon Lehenengo Topaketa". Zein helburu lortu nahi duzue?**

**Jose Inazio.**- Topaketari jarritako azpitoluak dioen bezala "Euskal pedagogia eta curriculum musikaren inguruan" antolatu dugu. Horren barruan lau helburu zehaztu ditugu:

Hasteko, hezkuntza alorrean dihardugun musika irakasle euskaldunon arteko ezagutza pertsonala eta profesionala bultzatu nahi dugu.

Bigarrenik, egoera profesionalaren azterketa amankomuna egin nahi dugu, egoera diagnostikatu eta atalez atal elkarlan profesionala eta elkarlaguntza areagotu.

Hirugarren helburua elkarte edo erakunde bezala antolatzea izango litzateke. Hau da, pedagogia musikalean ari garen irakasle euskaldunok, garen sektore profesional gisa, ditugun komunikazio eta arazo tekniko profesionaleri aurre egiteko geure burua erakundetzen urratsak ematea.

Eta azkenik, Euskal Herri osoan eragina izango duen, bertan egokitutako eta musika irakaskuntzan gure egingo dugun gutxienekoen

curriculum erdietsiko duten lan taldeak martxan jartzea. Nolakoa izan behar du euskal hiritar musikalak? Galdera horri erantzuten hasi nahi dugu.

**Curriculum horrek nolakoa izan behar duen aurreikusten al duzue?**

**Jose Inazio.**- Curriculum horrek gutxieneko ezaugarri batzuk bildu beharko ditu, gutxieneko horiek Iparraldean, Nafarroan eta EAEn erabili ahal izateko moduak izan beharko dutelarik. Gero, Zuberoan Zuberoako berezitasunak eta erreferentziak indartuko dituzte, Nafarroan Goian eta Beherean ere gauza bera egingo dute eta besteok ere bai.

**Eta gutxieneko horiek zein indotatik abiatuko dira?**

**Jose Inazio.**- Alde batetik, daukagun kultur aniztasuna, bestetik, lurraldetasunarekiko errespetua eta azkenik, musikaren irakaskuntza bera jaso beharko dute. Hori ere diseinatu beharra dugu, hots, alderdi tekniko-musikalean unibertsalak izango diren ezaugarri horiek. Ezin baikara sartu musika eta dantza

eskolen zereginetan, ez kontserbatorioenetan ere. Baina aldi berean, gutxiengo horiek kontuan hartu beharko litzukete guk eskoletan egiten duguna errepika ez dezaten.

**Josean.**- Euskaldun guztion curriculum izan behar du. Gutxiengo batzuk izango ditu eta horren gainean norberak egingo ditu maila pertsonalean eta lekuko berezitasunen araberrako moldaketak. Baina gutxiengo batzuk finkatu behar ditugu sagardotegian nafarrak, arabarrak eta zuberotarrak biltzen bagara sikiera abesti batzuk amankomunean edukitzeko eta kantatu ahal izateko.

**Curriculum musikal hau euskal curriculum orokorrean txertatzen duzue, ezta?**

**Jose Inazio.**- Bai, bai. Guk ez dugu ikusten musika osotasun bezala, irakaskuntzako atal bat bezala baizik. Norberaren bizi esperientzian eragina duena, baina atal bat. Beraz, ez dugu inolaz ere egiten kontserbatorioan egiten duten bezala musika abiapuntu eta bukaeratzat hartu.



**Amaia ETXEBESTE**  
Elizalde (Oartzun) eskolako musika irakaslea

# MUSIKA IRAKASLE EUSKALDUNAK



“*Curricu-  
lumean  
gutxiengo  
batzuk finkatu  
behar ditugu  
nafarrak,  
arabarrak edota  
zuberotarrak  
edonon elkartzen  
bagara sikiera  
abesti batzuk  
amankomunean  
edukitzeko*”

*Josean Razkin*

“Euskal pedagogia eta curriculum musikalaren inguruan” topaketa lanean hasteko lehen urratsa izango da. Zer antolatu duzue topaketarako?

**Josean.**- Hitzaldiak eta elkarlana izango dira ardatz. Hitzaldietan gehienbat esperientzien berri emango da, oso esperientzia desberdinak eta leku desberdinetakoak berauek. Iparraldetik lau etorriko dira eta Nafarroako Aznarezen taldeko kide batek beraien lan egiteko modu bereziaren berri luzatuko digu.

Topaketa hauetara hurbiltzen den jendeari zera jakinarazi behar diogu: ez dutela konferentzia handi eta serioa entzungo, gutako batzuen esperientziak baizik. Agian oraingoan eserita dagoen norbait hurrengoan hitz egiten egongo da.

**Jose Inazio.**- Hitzaldiak goizean izango dira eta arratsaldean curriculum eta musika irakaskuntzaren egoera izango dira hizpide. Bildutako pertsona guztiak taldetxotan banatuko ditugu eta talde bakoitzak galdera sorta bat erantzun beharko du ondo-

ren amankomunean jartzeko. Kezkatzeko gaituzten gaiak izango dira eztabaidagai: curriculumaren ezagutza eta erabilera, irakasleriaren heziketa, elkarrekiko komunikazioa eta berri-papera, material didaktikoa...

**Topaketarekin batera informazio bulegotxo bat ere irekitzekotan zarete. Zer aurrera diezagu-kezu horri buruz?**

**Amaia.**- Pedagogia musikalaren inguruko informazio zerbitzua zabaldu nahi dugu. Oiartzungo Udal Liburutegian kokatuko da eta pedagogia musikaleko material guztia biltzea da gure asmoa, edonork jakin dezan zein material dagoen Haur Hezkuntzarako, Lehen Hezkuntzarako, DBHrako eta abar.

Alde batetik, argitaratuta dagoen materiala bilduko dugu eta bestetik, bakoitzak sortutako materiala ere bai. Aholkularitza zentroa ere izango da, eta irakasle formakuntzarako interesgarria den material pedagogiko eta psikologikoa ere bilduko dugu.



# hik hasi



euskal  
heziketarako  
aldizkaria

32



ezker batua



# Hezkuntza

alderdi politiko  
en  
ahotan



Alfabetikoki  
antolatuak



# Eusko Alkartasuna

“Ezagupenaren gizartean” bizi gara, horregatik bai heziketa-sistema, bai ikerketa tekniko-zientifikoa funtsezkoak dira gure herriarentzat.

Aldaketa eta berrikuntza bere ezaugarritzat dituen gizarteak etengabeko hezkuntza eskatzen du, “ezagutzen ikastea” da garrantzia duena, hezkuntza-sistema orokortzailea eta sakona, gai gutxiren inguruan. Horrela, oinarri sendoak izanik, aldaketei egokitzuz bizitza osoan ikastea ahalbidetuko da.

Hezkuntza sistema propio bat eraikitzeak honakoa esan nahi du:

- Gizarte-integrazioan eta jatorrizko desberdintasunak gainditzen laguntzea, gizartearen eta aukeren berdintasuna gauzatzeko tresna izatea.

- Gizarte kohesioa bideratzea guztionak diren balioetan oinarrituz. Balio unibertsalak direnak, hala nola askatasuna, errespetua eta tolerantzia, bai eta geureak ere, Herri gisa identifikatzen gaituztenak, euskara eta euskal kultura ere, gure kultur ondarea aberasteaz gain, gizarte konplexu eta anitzaren batasun eta elkarbizitarako lotura bihurtu daitezten.

- Ikasleei oinarritzko prestakuntza sakona ziurtatzea, gaur egun dauden enpleguetan lan egin ahal izan dezaten eta gaur egun amesten ere ez ditugun enpleguak sortzen direnean haietara ere egokitzeko gai izan daitezten.

- Euskal Eskola Publikoa politikoki eta kualitatiboki indartzea, Euskal Hezkuntza Sistemaren ardatz gisa, sistema osoari behar dituen baliabideak emanez. Baliabide hauek, BPGari dagokionez, gizarterik garatuenei jarraituz %5,5era igo beharko genuke.

## Helburu estrategikoak

- Lehen Hezkuntzan, kalitatezko hezkuntzaren oinarritzko helburua ikasteko gogoia eragitera zuzendu behar da. Horre-

tarako giza zientzietan eta gizarte zientzietan oinarri sendoa lortu behar da, gure herriko bi hizkuntzen ezagutza egokia lortuz eta hirugarren hizkuntza bat menperatuz.

- Bigarren Hezkuntzan, hezkuntza eskaintzen aniztasuna bultzatu behar da, abstrakzioa eta kontzeptualizazioa alde batetik, eta eskolaren eta bizitza profesionalaren arteko oreka bestetik, bien arteko zubiak ezarri, aukera itxiegi onorioz ikasleak etorkizun mugatuegia izan ez dezan.

- Lanbide Heziketak “Lanbide Heziketarako Euskal Plana” abiaraziz, datorren laurtekoaren apustua izan behar du gure produkzio sistemaren beharrei eta mundu globalizatu baten eskaerei erantzuteko gai izateko. Plan berri honen bidez lanbide prestakuntza eta gaitasuna lortu behar da, ondasunen produkzioan eta zerbitzugintzan zuzenean parte hartu ahal izateko.

## Helburu hauek lortzeko, ondoko ekintzak proiektatzen dira:

a) Lehen eta Bigarren Hezkuntzan

- Irakasleen prestakuntza eta motibazioa eta hezkuntza proiektuekiko identifikazioa sustatzea. Horretarako honakoa eginez:

- Ikasleari, bere orientabideari, prestakuntzari, ikastetxeko proiektuari eta familiei arreta handiagoa emanez eta R ikastaroak gehitzea, prestakuntza eta gaitasuna bideratuz.

- Administratzailearen irudia garatzea.

- Zuzendaritza-taldean dedikazio funtzional handiagoa ahalbidetzea.

DBHren helburuak ziurtatzeko ondokoak hartu behar dira kontuan:

- Aniztasunari arreta berezia emanez, ikastetxe guztietan orientatzaileak eta aholkulariak ipini beharko dira.

- Bitartekoen hornikuntzan aurrera egi-

tea, ordenagailuak, Internet, telebista hezitzailea...

- Txikitatik hirugarren hizkuntza sartzan hastea, eskolaren izaera eleanitza indartzeko.

- A eredu nabarmen aldatzea, euskara irakasteko metodologia eta irakasleen prestakuntza hobetuz, jakintzagaiak euskara arian-arian sartuz.

- B eta D eruedetan aurrera egitea ikastetxeak euskaldunduz, aurreko laurtekoan abian jarritako Hizkuntz Normalkuntzarako Planen bidez.

- Heziketa-zikloak euskaraz egiteko aukera gehitzea, euskara laneko hizkuntza den inguru eta produkzio-sektoreetan ezartzeko plangintzak burutuz

b) Lanbide Heziketan

Lanbide Heziketari ematen zaion garrantziaren arabera izango dira gure produkzio sistemaren maila teknologikoa eta lehiakortasuna. LHko Euskal Plan Berriak prestakuntza sistema teknologikoki aurreratua sortu nahi du, enpresarekin eta produkzio sektorearekin erlazionatua, malgua eta aldaketa teknologiko, ekonomiko eta sozialez jositako mundu batera egokitzeko gai izanik. Plan hau “sistema osatu” izeneko antolamendu-eredu batekin osatu behar da. Horretarako:

- Koalifikazioen edo noten “sistema bateratua” abiarazi behar da, eskola-adineko gazteak prestatu, profesionalak birziklatu eta langabetuak birkalifikatzeko.

- Halaber, “Lanbide Gaikuntzen Sistema” garatu behar da ahalmenen txartel pertsonala sortuz, enpresetako praktikak eta lantegietako prestakuntza orokortuz eta dinamizatuz, tituluen katalogoa eguneratuz, LHko Ikastetxe Osatuen Sarea sortuz.

- Plan hau esparru instituzional egonkor batez hornitu behar da “Lanbide Heziketako Euskal Legea”aren bidez..



Milurteko berriari ate joka ari garen honetan nahitaezkoa da goitik behera berria izango den hezkuntza sistemaren eskuhartze eraginkorra gauzatzea, Eskola Akordio sendoa abiaburu hartuz. Guk ondokoen inguruan osatu dugu gure programa:

### **Integrazioa**

- "Hezkuntzako Akordioa garatuko da bai alderdi politiko, irakasleria, guraso, ikasleria, sindikatuak, eta bai agente ekonomikoekin.

- Eskaintza oparora izango duen hezkuntza sistema bakarra gauzatuko da. Irakaskuntza publikoak etapa guztien eskaintza integrala sortaraziko du, ikastetxeetako autonomian sakondu, zuzendaritza eta irakaskuntza taldeak bultzatu, egonkortasun handiagoko koadroak osatu eta ikastetxeek euren langileak hautatzeko aukera izango dute.

Gizarte ekimeneko irakaskuntzak ikasleria diskriminatuko ez duen

finantzaketa jasoko du eta irakasleak zein bestelako pertsonalak soldata duinak jasotzea bermatuko da. Langileen elebitasuna zuzpertzaren bidetik jarraituko da.

- Ikastetxeen autonomia zabaldu eta maila guztietara helduko da: hezkuntza proiektua, zuzendaritzaren egitura, jardunbideari buruzko araudia eta ikastetxea kudeatzeko proiektuetara.

- Hezkuntzako eskaintza berriak zuzpertzuko dira: Prestakuntza Iraunkorra sendotuko da, gazte eskolatugabekoentzat konpentsaziozko hezkuntza eratu, eskolaz kanpoko jarduerak (musika, kirola, jarduera artistikoak, hizkuntzak...) hedarazi, Helduen Hezkuntza Iraunkorra sartu, eta Gurasoen Eskolak sortu.

- Tolerantzia eta bakearen baloreak landuko ditugu, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna, bereizkeriarik-eza, eleantzasuna, kultura polizentrikoa, zentzu

humanista eta Euskal Herrian sustraiturik dauden lana ondo egitearen harrotasuna eta askatasunaren eta erantzukizunaren sena.

- Curriculumaren inguruan Humanitateen eta hezkuntza zientifikoa eta teknologikoaren indartzea proposatzen dugu. Lengoaien (propioa eta atzerrikoak) eta metalengoaien (matematika, informatika, musikala) jaramon berezia egingo zaielarik.

### **Modernizazioa**

Titulartasuna gora-behera, ikastetxeen arteko kalitatea eta lehiakortasun irizpideak sartu behar dira. Kalitatezko hezkuntza sistema batek ikaslea sistemaren ardatz bihurtu behar du. Irakasleriaren Etengabeko Formakuntza Unibertsitateko Irakasle Eskola eta Fakultateekin elkarlanean proposatzen dugu.

Informazio integratua eta banatua izango duen sistema garatuko da eta "Hezkuntzako Intranet" baten esparruan ikastetxeen elkarlotura (pedagogikoa, kudeaketakoa, eta ebaluatzailea) bultzatuko da.

### **Eleaniztasuna**

Hauxe da funtsezko helburua: derrigorrezko hezkuntzaren bukaeran hizkuntza unibertsal bat maila nahikoan ezagutzera eta LOGSE bukatzean nazioarteko edozein unibertsitatean ikasteko gaitasuna izatea.

Hizkuntz anitzekin batera EAJ-k Euskal Herriaren eraikuntza kulturala bultzatuko du. Ikasleek jaso duten ondarearen partehartzaile eta sustrai eta historia berezia duen herri baten partaide senti daitezen, horrela beraien etorkizunerako sendo presta daitezten.

Orohar, B eta D ereduak (D-k batik bat) euskararen ezagutza nahikoa ziurtatzen dute. Honek ez du kentzen materiale eta metodologiaren etengabeko hobekuntzaren beharra. "A" ereduak, aldiz, euska-

raren irakaskuntza aktiboagoa eskaini beharko du, Euskararen Legea bete dadin.

Euskarak eskolako gelen espazioa eta denbora gaintitu behar du eta gure ikasleek jarduera kultural, kirola, garraio, jantoki, harreman ez-formalaren esparrura era eraginkorrean heldu behar du.

### **Partaidetza**

Hezkuntza gauza garrantzitsuegia da hezitzaileen edota administrazioaren eskuetanuzteko. Gurasoek, ikasleriak, irakasleriak eta gainerako pertsonalak, administrazioak (Ikuskaritza eta Laguntza Sistemak), profesionalen erakundeak, sindikatuek eta enpresa elkarrekin esku-men eta konpromezu berriak hartu beharko lituzkete. Halaber, Euskadiko Eskola Kontseiluak eta Unibertsitateen Gizarte Kontseiluak euren lanaren proiektzio erangikorrak erdietsi behar dute beren azterketak eta proposamenak aprobetxamendu hobea izan dezaten.

### **Lanbide Heziketa**

Lanbide Heziketak nagusitasuna berreskuratu behar du gure gizartean. Familiek, gurasoek eta ikasleek informazio hobea jaso behar dute eskola-norabideari buruz eta ikasketak aukeratzeko ahal den erabakirik egokienak hartu ahal izateko.

Lanbide Heziketaren eremuan proposamen hauek egiten ditugu:

- Lanbide Heziketaren Euskal Plana bultzatzea. Neurri jakin batzuk indartuko dira, enpresak pizteko formulak bultzatu eta lanbide heziketaren sistema guztien arteko koordinazioa indartu.

- Kualifikazioen sistema euskal enpresen benetako eskarien arabera egokitu behar da.

- Lanbide Heziketa enpresetako praktiken bitartez osatuko da. Hartara, gaur egungo jakituriak lotuago egongo dira enpresek eskatzen dituztenekin.



# Ezker Batuak Berdeak

Ezker Batuak/Berdeakek Hezkuntza sistema gizarte aldaketarako tresnatzat hartzen du. Indarrean dauden hezkuntza politikak ez dabilta pertsonen prestakuntzaren atzetik hauek gizaki gisa errealiza daitezten, kulturara edo lanera sar daitezenedo, diskriminaziorik gabe, gizarteak berak sortzen dituen baliabideez goza dezaten. Horregatik, honoko hezkuntza sistema errebindikatzen dugu:

1.- Gizarte desberdintasunak konpentsatu eta maila guztietan aukera-berdintasuna erraztuko duena.

2.- Sormena, izpiritu kritikoa, bakearen aldeko borroka, lankidetzeta (hots, gutxiengoen integrazio soziala) eta ingurugiroarekiko begirunea sustatuko dituen.

3.- Gizartearen elebitasuna lortzen lagunduko duena.

4.- Desberdintasunak errespetatu, interkulturalismoa praktikatu, xenofobiaren eta sexu esterotipoen aurka borroka egin eta gizonezko eta emakumeen artean berdintasuna defendatuko duena.

5.- Hezkuntza sistemako elementu eraginkor guztien egiazko partaidetza sustatuko duena, guraso, irakasle eta ikasleak.

## **Eskola publikoaren alde**

Eskola lehen mailako sozializazio tresna dela uste dugu. Guk diru publikoz finantzatzutako eskolaren alde apustu egin dugu. Eskola publikoaren aldeko apustu ausartak ez du eragozten beharrezko izatea, modu subsidiarioan, diru publikoz finantzatzutako zentro kontzertatu sare baten osagarria, sistema publikoak babesu ezin dituen premiak estaltzeko.

Zentzu honetan, eskolako ituna eta bertarako diseinatutako mapa berrikustea planteatzen dugu. Uste dugu Oti 2 urterako haurren hezkuntza babestu behar dela herri eta auzune guztietan eskaintza eginez, eskualde behartsuenentzat aparteko arreta jarritz.

## **Finantziario legearen alde**

Finantziario Legea onartzearen premia

planteatzen dugu, helburu gisa eta, mailaz maila, Euskadiko BPGren (Baren Produktu Gordina) %6a bere hezkuntza aurrekontuan sartzea lortzeko.

Zentro guztietan administratzailea sortu eta jarri behar da bidezko diren plazak sortu eta efektibo eszedenteak banatzeko.

Premiei egokitutako diru-baliabideak edukitzea da lehen urratsa kalitatezko irakaskuntza finkatu ahal izateko.

## **Eskola elebidun eta integratua**

Euskadi gizarte elebiduna da eta eskolak errealitate honi erantzun beharra dauka. Euskalduntzea, etengabea tira-bira motibo bilakatzen ari da. Ikasleen gurasoek eskatutako euskalduntze helburuak hartu behar dira lanerako ardatz gisa. Eskola eskaintzak euskalduntzearen egiazko aurrerapen erritmoei erantzun behar die eta horretarako aurrekontu baliabideak gehitu beharra dago, dauden eskaerei erantzutea posible izan dadin, erantzukizun guztia irakasleen gain utzi gabe.

## **Enplegurako prestaketa profesionala**

Bat gatz Eusko Jaurilaritzak eta honen Kontseilaritzaren barruan landutako planaren lerro nagusiekin, proiektu honen finantziario mugatua salatzen badugu ere.

Euskal Legebiltzarrari neurri hauek hartzea proposatuko diogu:

- Prestaketa Profesionala taxuzko finantziario hornitzea.

-Zentro publikoen kopurua gehitzea Goi-mailako Prestaketa Profesionalako Zentro espezifikoen sarean.

-Agente sozialen partaidetza eraginkorra arautzea Planetik eratorritako erakunde desberdinetan, zentro espezifikoproioetan eta arautu beharreko Prestaketa Profesionalako eskualdeko kontseilutan.

-Gazteen langabezia-tasak % 40a gaitzen du Euskadin eta, uste dugu, neurri handi batean hezkuntza sistemari eta, bereziki, Prestaketa Profesionalari dago-

kiola egoera honi erantzuna ematea.

## **Irakaslearen funtzioa duinbhurtzea**

Hau ezinbestekoa gertatzen da une honetan, ezartzen ari den heziketa-erformak irakasleek baldintza egokietan lan egiten badute soilik lortuko baitu bere helburuak erdieste, ezinbestekoa da prekaritatea eta ezegonkortasun laborala drastikoki murriztea.

Premiazkoa da irakaslearen espezifikitatea batzea eta ez bereiztea euskal funtzio publikoko plantilako gainerakoekin. Irakasleak eskubidea daukate eta behar-tuak daude prestaketa iraunkorrera, eta horretarako beharrezkoa da:

-Birziklaia eta euskalduntzeko fondoak gehitzea, batez ere, beren arloetako kalifikazio teknikorako direnak.

-Irakasleen prestaketa-planaren urteroko negoziazioa bermatzea.

-Laneko orduetan prestaketa-aktibitateak gehitzea.

-Irakasle guztiek prestaketerako daukaten eskubidea errespetatzea.

-Irakasle gorputzean egonkortasuna defendatzea.

Langabeziari buruz, agente sozialekin negoziatu ondoren, irakasleen lan-orduen murrizketa eta lana banatzeko neurriak bultzatzeko konprometitzera garamatzate, eskola kargaren murrizketa, lanaldi bolondresaren murrizketa-aukera tratamendu bereziarekin 55 urtetik gorako kasuan, eta jubilatze adina 60 urtera aurreratzeko posibilitatea.

Bestalde, eta emanik emakumearen presentzia apala hezkuntza sistemako erantzukizuneko karguetan Ezker Batuak hainbat urterako plan landuko du emakumeen presentzia eta partaidetza sustatu eta bermatzeko.





# Euskal Herriarrok

Nazio eta herri gisa bizi dadin, Euskal Herriak bere Eskola Nazionala eta bere Unibertsitate Propioa behar ditu.

Hezkuntza Sistema Propioa eta Euskal Eskola Nazionala eraiki behar ditugu.

Eguno alderdien arteko Eskola Itunaren mugak gaindituz, hezkuntzako eragile guztien partaidetzarekin, Eskola hitzarmen zabala bultzatzen dugu.

Euskal Eskola Nazional horren zutabeak bi dira gaur, ikastolak eta ikastetxe publikoak. Gaurko eskola errealtatetik Euskal Eskola Nazionalerantz abiatzeko, honako ezaugarrietan sakondu beharra dago: lurraldetasuna, euskalduntasuna, titularitate eta finantziario publikoa, kudeaketa demokratikoa, ikastetxeen autonomia, aniztasuna... Ardatz hauen inguruko Eskola Hitzarmen zabala da bultzatu nahi duguna, Hezkuntz erakundeen eskuhartzearekin. Horretarako, proposamen hauen alde jardungo dugu:

## 1.- Hasierako mailetatik goi mailako ikasketetarako ibilbidea euskaraz egin ahal izatea bermatu

Ondorioz, hizkuntza ereduaren errotik aldaketa sakona ezinbestekoa izango da, euskalduntze helburuak bermatzen ez dituzten ereduak baztertuz. A eta G ereduaren desagerpen progresiboa proposatzen dugu zentzu horretan, hain zuzen ere. B ereduaren sustatzen duen "elebitasun dekretua" ezabatzea proposatzen dugu, eredu horretan ari diren irakasleetatik erdiak ez- euskaldunak izan daitezkeela dioena, alegia. Hizkuntza ez normalizatu batek trataera berezia behar du eta ezinbestekoa da eskolak baliabide berezi eta premiazkoen jantzea.

## 2.- Dagoeneko martxan dauden "hizkuntz normalizatzarako proiektuak" bultzatzea

Ikastetxe publiko, ikastola zein ikastetxe pribatuak biltzen dituen proiektu

honek izan duen arrakasta irakaskuntzan euskararekiko dagoen sentsibilitatea erakusten du eta berebiziko garrantzia izan dezake euskalduntze prozesuan.

3. **Ertainetan**, DBH Orako egin den plana berregitea litzateke egokiena, euskalduntze prozesuan ematen den etena ekiditzeko. Honetarako zera proposatzen dugu:

Euskara hutsean funtzionatuko duten ikastetxeen zerrenda gehitu egin behar da. Gutxienez, DBH euskaraz egin duten ikasle guztiei, bere zonaldean, euskaraz ikasten jarraitzeko aukera bermatu behar zaie. "B" ereduaren ikasten ari direnentzat baliabide bereziak ziurtatzea proposatzen dugu, benetan ikasleek hautaketa egiteko orduan euskara hutsezko ikasketak jarraitzeko gaitasuna izan dezaten.

Heziketa ziklotarako plangintza zehatza beharrezkotzat jotzen dugu eta horretarako irizpide hauek proposatzen ditugu: Eskariaren arabera planifikatzea, hots, abiapuntua ikasleek euskaraz ikasteko duten eskubidea izatea, zerbitzu arloko ikasketei lehentasuna ematea eta lurralde osoan eskaintza bakarra duten heziketa zikloak euskarazko eskaintza ziurtatzea.

## 4. Euskarazko irakaskuntzaren garapena ziurtatzeko erreziklari eta prestakuntzan neurri tinkoak eta zehatzak hartzea proposatzen dugu

Euskararen ezagutza ziurtatzeaz gain euskararen kalitateari ere arreta berezia ezarri behar zaio. Beraz, ezinbestekoa da irakasleak profesionalki gaituak izatea, euskaldun elebidunak izatea. Halere irakasle euskalduntzeak ezin du irakasle baten ematen den desoreka guztiz konpondu eta horregatik irtenbide berri eta imajinatiboak planteatu behar dira, hala nola, irakasle euskaldunen kontrata-

zio berriak, aurrejubilazioak, lanpostu alternatiboak hezkuntza sistematik kanpo, baja sarituak...

## 5.- Hizkuntzaren ofizialtasuna Euskal Herri osoan bermatzea ezinbesteko aldarrikapena da

Ondorioz, Ipar Euskal Herri eta Nafarroako egoerak irauli behar dira. Euskal herritar orok bere ikasketak guztiak, haurtzaindegitik unibertsitate-raino, euskaraz burutu ahal izateko eskubidea du.

## 6.- Sare pribatuari arreta berezia jarri behar zaio euskalduntze prozesuan muga bat izaten jarrai ez dezan

Gaztelaren gotorlekua bilakatu ez dadin. Ikastetxe kontzertatuei ezinbestean, euskararekiko konpromezua exijitu behar zaie.

## Euskal curriculum diseinatu

Hezkuntzaren edukinek, helburuek, egiturek, euskal gizartearen beharrei erantzun behar diete, berezko hizkuntzaren eta kulturaren transmisioa bermatuz. Ikuspegi propio hau izango da dimentsio unibertsalagoetara iristeko abiapuntu naturala. Hizkuntza batek ez du irauterik izango kultura propio aberatsa eta herrian ondo sustraitutakorik ez badu. Euskal curriculumaren planteamendua ez da apustu eta jarrera partidista bat, kulturaren aldeko jarrera baizik, euskal kulturaren aldekoa, hain zuzen. Alor honetan lantzen ari diren esperientziak baliotsuak diren arren, urrats berriak egiteko ordua da, curriculum ofizialak euskal ikuspegitik berraztertuz eta landuz.

## Irakasleria propioa sortu

Haurtzaindegitik unibertsitate-rainoko bide osoa jasoko duena. Irakasleei buruzko legedi propioa sortu eta Euskal Herri mailako negoziario kolektiboa bultzatzea proposatzen dugu.



# Partido Popular

Hezkuntza gizarte aurreratuetako oinarritzko zerbitzu publikoa den heinean, bitarteko zientifiko eta teknikoan aberatsa den gizarte lehiakor baten interesen zerbitzura egon behar du eta askatasunean, elkarbizitzan, aniztasunean, tolerantzian eta pakean oinarritutako gizarte lortzeko bitartekoa izan.

Gure hezkuntz proiektua funtsezko lau puntutan oinarritzen dugu:

## 1.- Hezkuntzaren kalitatea

Euskal Herriko haur guztien eskolatzeari aspaldiko lorpena da. Horri jaiotze-tasaren beherakadak, hezkuntza eskaintzaren dibertsifikazioak, gazteen lan munduraketak, hamasei urte arteko derrigorrezko eskolatzeari, ezinbestekoa egiten du hezkuntza kalitatearen hobekuntzari ekitea. Guk lehentasun neurri hauek hartuko ditugu:

- Eskola maparen diseinuan jaramon gutxi egin bazitzaion ere, zentroetako baliabide materialak optimizatuko ditugu.

- LOGSE gauzatzeko beharrezko den zentro publikoen hornidura hobetu eta modernizatuko dugu.

-Heziketa berdintzailea eta curriculumaren aniztasuna bultzatuko dugu, betiere LOGSEren izpirituaren barruan, behar hainbat irakasle laguntzaileak jarri.

-Guraso elkarten partaidetza aktiboa eta eraginkorra indartuko da.

-Helduen heziketa iraunkorrari ardura jarriko zaio.

-Hezkuntz prozesuak ebaluatuko dituen Ikuskaritza Zerbitzu independentea eta profesionala bultzatuko dugu.

-DBHOren ondorengo ziklo horretarako (16-18 urte) urrutiko hezkun-

tza sustatuko dugu.

-Heziketa berezian ahalegin aparta egingo da gutxitu psikiko eta sentsoarrialen alde.

## 2.-Irakaskuntza askatasuna

Zentroa aukeratzeko askatasuna derrigorrezko baldintzat hartzen dugu gurasoen erantzukizuna eta protagonismoa bermatu ahal izateko. Botere publikoak eta gizarteak elkarrekin hezkuntz sistema mistoa (publikoa eta pribatua) antolatu behar dute, eskaerak agintzen duten arabera. Beraz denon diruak denon irakaskuntza finantziatzeko erabili behar da, hots, publikoak eta legedia betetzen duten pribatuena ere.

Horrela, Hezkuntza Sistema berria sortuko litzateke ondorengoetan oinarrituta: potere publikoak ez du hezkuntzaren zerbitzu publikoaren monopolioa, zentroen sorkuntzaren eskubidea subentzioekin lagundu behar da, zentro pribatu horien hizkuntz eredia aukeratzeko askatasun osoa izango dute, inongo baldintzarik gabe.

## 3. Hezkuntza adostasuna

Adostasun izpiritu iraunkorra mantenduko dugu gai hauetan:

-Irakasleriaren duintasun profesional eta soziala bultzatzerakoan.

-Giza ikasgaien erreforma Humanitateen diseinu curricularraren berrikuspenera eginez Euskal Herriko historia eta Espainiako historia amankomunaren irakaskuntza zehatzagoa eta errespetu gehiagokoa bermatzekoan.

-Europar komunitateko bigarren hizkuntza baten aukerako ikasketa ezartzean, progresiboki hiru urtekoengaino zabalduz.

-Eskara errearen, errealitate sozio-linguistikoaren eta irakasleok eskuratu eskubideen errespetuaren arabera eskola maparen berrikuspenera.

-Irakasleriarentzako O perfilaren ezarpena. Euskara ez jakiteak irakaskuntza utzi edo sarbideak ixteko motibo izatea ekiditu behar da. Gai honen inguruko arautegiaren berrikuspenera ezinbestekoa da irakaskuntzaren pobretzea baino ez dakarten justifikaezinezko kanporatzeak gerta ez daitezen.

## 4. Irakasleriaren duintasuna

Ekonomikoki diskriminatua, irakaskuntzak berarekin daraman tentsio psikikoa nozitzen duen, eta euskalduntze erritmoarengatik akitua sentitzen den irakasleriarentzat hau proposatzen dugu:

-E.A.E.ko gainontzeko funtzionarioekin parekatu eta funtzionario bihurtu zireneko baldintzak errespetatzea (oposizio, lekualdatze-lehiaketa).

-Eurenganaturtako eskubideekiko lege baldintzak errespetatzea eta betearaztea.

-Administrari karguetara heltzeko behar diren baldintza profesionalak errespetatzea.

-Hezkuntzaren zerbitzua gehiago gaituko duten errekursoak indartzea

-Ordutegiaren murrizketa 55 urte-tik gorakoentzat.

-Lanbide honen berezko gaixotasunak aztertzea eta kasu bakoitzean beharrezko neurriak hartzea.

-Liberazio ugariengatik pertsonalki edo zentroentzako kaltegarri izango ez diren euskalduntze erritmoak antolatzeari, perfil O ere barne hartuko delarik.

-Berdintasun, gaitasun eta merituen printzipioak errespetatzea.



# Partido Socialista de Euskadi Euskadiko Ezkerra

Sozialistok uste dugu Euskal Hezkuntza Sistemak hiritar guztiak bere gaitasunaren arabera formakuntza lortzeko eta honen bidez, enplegua sortzeko bidea izan behar duela. Aldi berean, tolerantzia, aniztasuna, berdintasuna, elkartzasuna, justizia, bizitza demokratikoa eta bakegintzarako baloreak garatzeko bitartekorik egokiena izatea nahi dugu.

Gure programak ondorengo konpromezu hauek eramanen ditu:

## 1.-Irakaskuntza publikoa babestera eta sustatzera

-Bere kalitatearen hobekuntzarantz goaz eta ideologikoki honela taxutzen dugu: anitza, elebiduna, euskal gizartearen zerbitzura dagoena, sozial eta kulturalki inguruan oinarritutakoa, partehartzailea, deberdintasunen ezabatzailea, eta aniztasunaren bateratzailea.

-Hezkuntza Sistema Publikoaren eza gutza hedatu behar da eta horretarako Eskola Publikoaren Defentsarako Plataforma hartuko dugu parte.

-Zentroen kudeaketa bultzatuko dugu. Zentzu horretan partehartze demokratikoan sakonduko dugu, eta integrala eta eraginkorra den kudeaketa-eredua definituko dugu. Zuzendaritza trebea eta egonkorra ahalbidetuko dugu, langile administrariak esleitu eta antolakuntzarako kultura zabalduko.

-Etapas desberdinetako ikasketak eskaintzen dituzten zentzuez osaturiko hezkuntz-ibilbideak ezarriko ditugu.

-Hezkuntz Ikuskaritzak eginiko aldizkako ebaluazioen bidez irakaskuntzaren kalitatea ebaluatzea ahalbidetuko da eta ikasleen eta beren legezko ordezkarien partehartze dinamikoa bultzatuko dugu.

-Aholkulari eta orientatzaile postuen indartzearen prozesua sendotuko dugu, bai Lehen Hezkuntzan eta bai Ertaintan.

## 2.-LOGSEren ereduaren defentsa egiten dugu eta egonkortasuna eta

nahikotasuna bermatuko duen sistema finantzarioaren beharra ikusten dugu. Horregatik, Oinarritako Finantzaketa mantentzea eskatzen dugu eta BIGren gorakadak ere isla izatea hezkuntz aurreratuaren bidez.

## 3.-Irakaskuntza pribatuaren arloan derrigorrezkoa eta ez derrigorrezkoa den hezkuntza bereizten ditugu.

-Derrigorrezkoari dagokionez, eskola kuota mantenduko dugu eta 3-16 urte bitarteko eskolatzeko pixkanaka doaneko izan dadin, kontzertazio osoaren bidez, ahalginduko gara. Sare publikoko irakasleen ordainsarien berdintzeruntz joango gara. Formakuntza, sakontze eta gaitasun linguistikoari buruzko beharrei ere erantzun diegu.

-Derrigorrezkoa ez den irakaskuntzan, administrazioarekin kontzertazioak sinatu ordez, ikasleentzako beken politika gauzatu beharko litzateke.

-Ikastolentzat proposatzen zen "hirugarren sistema" haren arinkeriak baztertu eta gero, esan beharra dago Euskal Hezkuntza Sistemak sare publikoa eta pribatua besterik ez dituela onartzen.

-Guk behar bezainbateko finantzaketa izango duen sektore pribatu bakarraren alde gaude, kalitatezko hezkuntza doaneko baldintzetan bermatuko duena eta soldata duinez ordaindutako irakasleekin.

4.- Ezinbestekoa da **produktzio sistematik datozen beharrei aurre egingo dien Hezkuntza Sistema finantzaketa**. Honetarako DBH, Batxilergo eta LH zentroen arteko harremanak bideratuko ditugu. Eskolako antolaketa eta giza nahiz materialeen errekurtsuen atxikipenerako autonomia izango dute. LH zentro guztietan Etengabeko eta Formakuntza Okupazionala eskaintzea ahalbidetuko dugu bai enpresa eta bai eskolen mesederako. Hau guztia aparteko orduen

kontrako eta lanaren banaketaren printzipioaren arabera jokatuz. Europar Batasunean ohikoa den "partenaritza" bat ere sortuko dugu.

-Helduen Hezkuntza zabaltzea, aniztasuna eta bulkada emango diegu eta Helduen Irakaskuntzaren Legea gauzatu.

## 5.- Euskara irakaskuntzan

Hezkuntzaren kalitatea hezkuntzaren profesionalen kalitatean eta beren asebetetzean datza. Ezin da irakaskuntzaren kalitatea eta haren profesionalak sakrikatu berreskurapen linguistikoak eskatzen duen erritmo natural eta zentzuzkoa behartzeagatik. Derrigorrezko Irakaskuntzaren mailetak eskasak eta gero, eskasak soziala, errekurtsioak eta irakaskuntzaren kalitatea konbinatu behar ditugu atzera geratzen diren irakasle on askori bere irakaslan ahalbidetu ahal izateko.

-Soziolinguistikan eta hezkuntz konparatuetan jarduten duten adituez osatutako Institutua sortzea bultzatzen dugu, ikasleen bi hizkuntzetako emaitzak ebaluatu ahal izateko.

-Hezkuntza sistema elebidun, orekatu eta progresiboa osatuko dugu.

-Diren bitarteko guztiak erabiliko ditugu. A ereduaren emaitzak hobetzeko.

## 6.- Langileria

-Sozialistok irakasleriaren formakuntza bultzatuko dugu urteko planen bitartez.

-Aldi berean, irteera profesionalak bultzatuko dituen politika gauzatu dugu, irakasle, guraso eta beste sektoreetako interesatuekin ados jarritz.

-Irakasleak ez dira kaltetuak izango bere egoera profesionalan (promozioa, egonkortasuna...) hizkuntz perfila lortu ez dutelako.

-Interinoen etorkizuna argitu eta sustapen-sistemak berrikusiko ditugu, esparruko lanpostu berriak sortuz eta enpleguaren banaketarako formulak babestuz.



# Unidada Alavesa

Hezkuntza Sistema, nazionalisten esku egonik, PSOEk jarritako oinarriekin eta bere baimenarekin Euskal Herriko errealitate historiko eta kulturalak aldatzeko tresna bihurtu da, kasu batzuetan benetako doktrinamendu ideologikorako sistema sortuz.

## Hezkuntza

Hezitzea ez da euskalduntzea, XXI. mendeko Europar elkarbizitzeko eta lehiatzeko prestatzea baizik.

## Alternatiba foralista

1.- Hiritar guztiei bi urtetik aurrera hezkuntza sisteman sartzea bermatu behar zaie, egungo krisia dela eta pobrezian eta marjinituta dauden talde sozialetakoek barne hartuko dituztelarik. Hezkuntza sistema zergen ordainean jasotzen dute hiritarrek eta Ongizate Estatuak aukera-berdintasuna bermatzeko erabiltzen duen formula bat da.

2.- Hezkuntza osoaren ereduak hornidura sistema publiko batean oinarritu behar du. Horrela, ikastetxe pribatuek kontzertuen bidez lortu ahal izango dute beharrezko hornidura. Horrela bakarrik izango da posible Ikastetxearen aukeraketa librea eta nekazal guneetako biztanleei ere aukera-berdintasuna bermatuko zaie.

3.- Hezkuntza sistemak erantzukizun handia dauka hiritarrak prestatzeko eginkizunean. Benetako gaitasun kompetitiboaz jantzi behar ditu haiek lanbide bat lortzeko gai izan daitezen. Baina horrez gain, hezkuntza hirugarren sektoreko zati handi baten enpleguaren oinarria da, eta horregatik giza baliabideen kudeaketa politikak hezkuntzaren inguruko lanpostuak bermatu beharko ditu.

4.- Euskal hezkuntza sistemarako lan egiten dutenek bertarako sarrera bermatua eduki beharko dute prozedura gardenen bitartez, noski. Berauetan meritu profesionala gainontzeko elementu politiko edo antzekoren gaitetik baloratuko da. Prestakuntza profesionala eta egokitze curricular etengabea garantizatuko dira irakasleriak baliagarri izaten jarrai dezan bere heziketa funtzioan, garai berriei egokituz eta lan baldintzetan hobetzen joateko.

5.- Euskal Hezkuntza Sistemak nazio espainolaren Legeetara moldatuko da. Lege hauek Estatuako hezkuntza komunitate osoarentzat izendatzaile komuna bermatzen dute zenbait ikasgaietako faltsifikazioa ekiditeko (geografia, historia, literatura, hizkuntza eta giza zientziak). Gai honetan Komunitate Autonomoko berezitasunen irakaskuntzak Espainiako eta Europako erralitatearen irakaskuntzarekin bateragarri izan behar du.

6.- Hezkuntza sistema ebaluatzeko prozedurak ezarriko dira eta arauen betetzea ikuskatuko da. Era berean, familien eskubideak garantizatzen eta ikasleek dituzten alternatibak ezagutzeko informazioa emango da. Alternatiba hauek beraien perfilaren arabera izango dira eta denborak aurrera egin ahala kompetitiboak izango dira oraingo eta etorkizuneko lan merkatuaren ezaugarrien arabera.

7.- Euskal Unibertsitate Publikoaren inguruan eztabaida sakona burutu behar da. Gure kasuan haren deszentralizazioaren alde agertzen gara Gasteizko Campusean Arabarentzat Unibertsitate Publiko bat aldarrikatzen

dugularik. Honek eskainiko dituen titulazio eta giza zerbitzuen bidez ikasle arabarrek nozitzen duten diskriminazioari amaiera jarriko genukeelarik.

Bestalde, Unibertsitate eta enpresa arabarren arteko harremanak gizarteren eta ekonomiaren elkarlotura ahalbidetuko dute. Hurbileko eskaintzek garraio-gastuak ekidingo lizkieke ikasleen familiei.

8.- Euskal Hezkuntza Sistemak bere lehentasunen artean prestakuntza etikoa edukiko du. Modu aktibo batean azpimarratuko dugu tolerantzia, bakea eta giza eskubideen errespetuaren kultura.

9.- Euskal hezkuntza sistemak oinarritzko hezkuntza sistematik at dauden titulazio eta ekintzak bereganatuko ditu. Adibidez, arte aplikatuak, lanbide artistikoak, musika irakaskuntza, hezkuntza berdintzailea, arte dramatikoak, dantza eta helduentzako hezkuntza. Hau guztia, oinarritzko hezkuntza sistema bezalaxe, dohanik eskainiko da.

10.- Euskal hezkuntza sistemak hiritar askeak, kulturalki anitzak eta bizi diren komunitateari erantzuteko gai bikurtuko dituen hizkuntz ereduak eskaini behar ditu. Beraz, hezkuntza nahi den hizkuntz ereduan jasotzeko aukera libreak eta Batasun Europarreko hizkuntz ofizialen ezagutzak ez ditu familiaren gastuak igo behar. Halaber, Gobernuak behar diren dirulaguntzak emango ditu unoren maila ekonomiko baxua oztopo bihurtu ez dadin.

## Mahats bilketa

### Lizarrako kanpinaren eskutik

**M**ahatsa biltzeko garaia urrian izaten da Nafarroan. Euskal Herriko ikastetxe askotako ikasleek dakite hori, gertutik ezagutu baitute mahatsaren bilketa eta ardoa egiteko prozesua Lizarrako kanpinaren eskutik. Duela 6-7 urte hasi ziren eskoletako ikasleentzat bisitaldiak prestatzen. Oraingo honetan gu ere hurbildu gara Goizuetako eskolako haurrekin batera.

Egun hotza eta haizetsua egokitu zitzaigun Lizarrako bidaia egiteko. Baina behin hara joanda, mahastira hurbiltzeko irrikitan geunden Goizuetako ikasleak bezalaxe. Lau irakasle eta 30 ikasle inguru gerturatu ziren, eta guztiok gidatzeko han zeuden Lizarra kanpineko begiraleak.

Ez zuten denbora asko galdu goizuetarrak lanean jartzen. Hamarnakako taldetan banatu eta elkarren jarraian hurbildu ziren mahastira. Ondoren, binaka jarri, saski bat eta guraize bana hartu eta mahatsondoan ondora hurbildu ziren. Iarra begiraleak argi azaldu zien nola moztu behar zituzten mahats sortak, eta horretan jarri ziren berehala. Saski osoa bete ondoren, ontzi handietan hustutzen zituzten. Eta noski, lanaren ordaina mahatsa dastatu eta jateko aukera. Batzuk hamaiketako ederra egin zuten!

Ondoren, mahastia atzean utzi eta

kanpinera itzuli ginen bildutako mahatsarekin. Eta... mahatsa bildu ondoren... zapalketa, uzta jasotzearen poza azalduz edo. Bada, Goizuetako haurrak ere giro horretara hurbildu nahi izan zituzten, eta gerriko gorria jarri, oinetakoak erantzi eta binaka sartzen ziren tolban. Elkarri heldu eta hankak gora eta behera mahatsa zapaltzen gustura aritu ziren. Mahatsa zapaldu ahala zukua atera zen, muztioa, alegia. Ondoren, muztio hori iragazi eta denak edatera! Gozo-gozoa eta erraz edateko modukoa zegoen, bai!

Bazkandu ondoren, berriz, Lerin herriko bodega bat ikustera joan ginen. Ardoa nola egiten den ikusteko aukera izan genuen, eta batez ere nolako tresneria erabiltzen den ikusteko.

Lizarrako egunpasaren ondoren, goi-

zuetarrak mahatsa eta ardoaren prozesua ikusi eta ikasita itzuli ziren etxera. Zer hobeto gertutik eta zuzenean biziz ikastea liburu artean goatea baino!

#### Ikusi eta ikasi

Lizarrako kanpinak Mahats bilketa kanpainaren bidez ematen du ezagutzera prozesu hau. Iarra eta Pello Cia dira haurrei azalpenak ematen aritzen direnak eta egun osoan zehar gauzak ikusi ahala argibide gehiago eman dizkigute.

Eskaintzen duten proiektua 10-12 urteko ikasleentzat zuzendua dago bereziki, baina oro har Lehen Hezkuntzako 3. ziklorako eta DBHko 1. ziklorako egokia da. Sei helburu didaktiko dituela esan daiteke:

1- Ardoaren jatorria, konposaketa eta bereizketa ezagutzea analitikoki eta historikoki.



2- Ardoaren prozesu osoa jarraitzea, lehengai den unetik salmenta punturaino.

3- Ardoaren erabilpen indibidualen eta sozialen alderdiak aztertzea eta baloratzea kritikoki.

4- Mahats bilketak eskatzen duen lana eta esfortzua gertutik ezagutzea.

5- Bodega eta alkoholeraren funtzio-namendua gertutik ezagutzea.

6- Gai honen inguruko memoria bat egitea eta klasean aurkeztea eztabaidatu ahal izateko.

Helburu hauek lortzeko hiru lan edo ekintza mota egin daitezke: egonaldiaren aurrekoak, egonaldikoak eta egonaldiaren ondorengoak. Iarra eta Pello Ciak egonaldiko ekintzen berri eman digute.

### Ardoaren prozesua urratsez urrats

#### Bilketa

Mahatsa urrian biltzen da batez ere, nahiz eta iraila bukaerara edo azaroa hasierara luzatu batzuetan. Eskuz edo makinaz bildu daiteke eta ontzi handi batzuetan pilatzen da.

#### Zapalketa

Handik bodegara eramaten da eta mahatsa tolba batera botatzen da. Lehenengo gauza kirtena kentzea izaten da, kirtenak zapore mingotsa ematen baitio. Ondoren, gainontzekoa zapaldu egiten da. Lehen hankekin zapaltzen zen, baina gaur egun makinekin egiten da.

#### Hartzidura

Mahatsa zapaldu ondoren muztioa ateratzen da, hots, hartzitu gabeko zukua. Eta honen ondoren, hartzidura hasten da, muztioa ardo bihurtzen deneko prozesua, alegia.

Mahatsa hartzitzen hasten denean bakterio eta legamia batzuk hasten dira lanean. Legamia hau mahatsaren azalean egoten da. Pixkanaka berotzen hasten da eta azukrea alkohola bihurtzen da. Hori da hartzidura, hain zuzen ere. Prozesu honetan garrantzitsua da tenperatura gainbegiratzea, zeren gehiegi berotzen bada, usain ona galduko baitu. Normalean tenperatura urez betetako altzairuzko hodi batzuen bitartez kon-

trolatzen da. Denbora ere kontrolatu behar izaten da. Gehiegi hartzitzen bada, alkohola ebanoratu egiten da eta orduan ardoaren orde zozpina lortzen da. 20-25 egun pasatzen ditu normalean hartzitzen.

#### Garraioa

Hartzitu ondoren, beraz, mahatsa ardo bihurturik daukagu. Ondoren, botiletan sartzen da, batzuk urteko ardo bezala berehala saltzeko eta beste batzuk bodegan ontzeko eta erretserbako ardo bezala saltzeko beranduago.


Kalitateaz gain, kolorea ere desberdina izaten du ardoak: ardo txuria, gorria eta beltza daukagu. Hiruren arteko ezberdintasuna zein den argi azaldu digu Pello Ciak: "Ardo txuria mahats txuriarekin egiten da eta beste biak beltzarekin. Hauen arteko ezberdintasuna prozesuan dago. Kirtena kendu ondoren kupelera botatzen da gainontzeko guztia, azala eta barruko hazia, dena nahasturik. Ardo gorria ateratzeko zortzi orduz edukitzen da horrela eta gero azala eta muztioa bereiztu egiten dira hartzitu aurretik. Ardo beltza egiteko, berriz, ez dira bereizten, eta hartzidura prozesu osoan batera egoten dira muztioa eta azala. Horixe da ardo gorria eta beltzaren arteko ezberdintasuna".

Txakolina ere mahatsarekin egiten da, baina txuriarekin. Behar bezala ondu gabeko mahatsak izaten dira eta batez ere Kantauri itsasertzean daudenak. Hemen eguzkiak ez du hegoaldean bezainbat berotzen eta horregatik ez da hainbeste heltzen. Ondorioz, azukre gutxiago dauka eta txakolinak ere ardo baino alkohol gutxiago (Ikus ondoko eskema)

#### Nafarroako mahastiak

Nafarroan mahatsak izugarriko garrantzia du. Zeltek ekarri zuten Babilonia aldetik, leku epeletik eta gaur egun 20.000 hektarea mahasti daudela informatu digu Pello Ciak. 10.000 langilek egiten dute lan mahastietan eta urtero 100 milioi kilo mahats jasozen da. Hortik 75 milioi litro ateratzen dira. Mahatsondo bakoitzak bospasei kilo mahats ematen ditu. Landatu eta hiru urtera hasten da mahatsa ematen eta gutxi gora-behera 50-60 urteko bizitza izaten du.

### Ardo beltzaren prozesua



# Gela barruko lana

**L**ehen aipatu dugu mahats bilketak hiru ekintza edo lan mota egiteko aukera ematen duela: bilketaren aurretik, bilketa garaian bertan eta ondoren. Aitor ikastolako irakasle eta ikasleek badaramatzate urte batzuk Lizarrara joaten eta bidaia hori ongi aprobetxatzen ikasi dute. **Matti Navas Natur Zientzietako irakaslea** zen lehen Donostiako Aitor ikastolan eta orain Lauaizeta ikastolan. Bere ikasgaiko hainbat gai eta arlo lantzeko aprobetxatzen du urtero Lizarrara egiten duten bidaia, eta unitate didaktiko bat osatua dauka.

Unitate honetan, natura ezezik, historia eta geografia ere biltzen ditu. Mahatsa eta ardoaren gaia aitzakitzat harturik, beste hainbat gauza ikasteko eta ikusteko aukera ematen dio. 12 saiotan lantzeko materiala da, lehen OHOk 7. eta 8. mailan eta orain DBHn.

Matti Navasek berak osatutako materiala luzatu digu eta zati batzuk helerazi nahi dizkizuegu lagungarri suerta daitekeelakoan.

## “Mahatsa ardo bihurtzeko prozesua”

### Nafarroa - Eguraldiak - Mahastiak

Euskal Herriko mapa honetan Nafarroa margotu bere hiriburua eta garran-

tzitsuak iruditzen zaizkizun beste bost herri (Lizarra barne) kokatzen dituzue-larik.



### Zer dakizue Nafarroako historiari?

Hona hemen Euskal Herrian bereiz ditzakegun klimak:

- Mediterraneo
- Ozeanikoa
- Iragapen zona
- Subalpetarra

### Koka itzazue mapan



Imajina dezaket une honetan zer pentsatzen ari zareten: “gure irakaslea erotu eta mahastiez roiloa sartu ordez Euskal Herriko datuez ari zaigu”. Hala ere, zuen buruei astindu xuabe bat ematen badiezue, gaia horrela has-



tearen arrazoia berehala aurkituko duzue.

Zergatik Nafarroa mapan kokatu? Zergatik klimen errepasoa egin? Honek zerikusirik izango ote du gure gaiarekin?

Beno, hona hemen beste mapa huts bat. Oraingoan zuen ustez zeintzuk diren mahastiak landatzen diren tokiak seinalatu behar duzue.



Bukatzeko, klima, geografia eta mahastien landaketaren arteko konparaketak egin itzazue.

### Mahastien historia

Kristo aurreko 600. urtean fenizioak Europan sartu eta mahatsondoak ekarri zituzten, Mediterraneo aldean berehala zabaldu zirelarik.

Beranduago erromatarren konkista

zela eta, hauek menderatutako herrialde guztietara eraman zuten mahatsondoa; batzuetan arrakasta lortzen ez bazuten ere (Bretainian, adibidez), beste batzuetan betirako finkatuak utzi zituzten (Frantzia, Espainia, Euskal Herria, Portugalen...).

XVII. mendean Europako landare hau Ameriketara eraman eta han landatzen saiatu ziren. Landatu bezain laster "filoxera" deituriko gaixotasun bat agertzen zitzaien landareei eta sustri berezidun landare bat lortu arte ezin izan zuten landaketa honekin aurrera jo.

Gaixotasun hau Europara ere iritsi eta mahasti asko galtzen hasi ziren. Ameriketara arazo argitua zutenez, handik txertoak ekarri eta hemengo landareei ezarri zieten gaixotasunari muga jarri. Gaur egun horrela jarraitzen da.

Aipatu behar dugu mahastien ezauguera Santiagoko Bideari esker ere zabaldu egin zela; honen ondorioz bide honi "ardoaren bidea" izena eman zitzaion.

**Ba al dakizue zer den Santiagoko Bidea?**

**Nafarroatik pasatzen al da? Nondik?**

**Bide honek zertan lagunduko lioke gure prozesuari?**

### Mahastiak hilabetez hilabete

**Urtarrila:** inausketa.

**Otsaila:** lurraren prestaketa; mugitu eta ongarrizatu.

**Martxoa:** mahatsondoari izerdia ateratzen hasten zaio.

**Apirila:** hostoak agertzen dira.

**Maiatza:** lore garaia da.

**Ekaina:** beroa iritsi eta harremantarako aroa: ugalketa.

**Uztaila:** lehenengo ale txikiak agertzen dira.

**Abuztua:** mahatsa belztu egiten da.


**Iraila-urria:** fruitua prest dago eta mahats biltzaileek bilketari ekiten diote.

**Azaroa:** udazkena eta... hostoak

horitu eta lurrera!

**Abendua:** mahatsondoa biluzik dago, deskantsuan.

**Zer iruditzen zaizue hurrengo urterako egutegi bat prestatzen badugu mahatsondoak pasatzen dituen aldaketetan oinarriturik?**



### Hartzidura - Jogurtaren prozesua

Mahatsa ardoa bihurtu genuen bezala, orain esnea jogurt bihurtuko dugu: Materiala:

- Kristalezko edalontzia (bakoitzak berea)

- Esnea (litro bat taldean)

- Jogurt (ontzi bat taldean)

- Sua

- Bero iturri bat

### Prozedura:

- Esne litroa berotzen jarri epeldu arte.

- Edalontzi bakoitzean jogurt goilaratxo bat bota, gainean epeldu dugun esnea isuri eta nahastu.

- Berogailuaren gainean 8-10 ordu utzi zapi batez estalirik.

### Hipotesiak osatuz:

Zer uste duzue gertatuko dela? Zergatik?

**Zergatik erantsi diogu esnari jogurt goilaratxo bat?**

### Mahaingurua

"Porrontxo jaiak eta alkohola"

Ariketa hauek Matti Navasen unitate didaktikotik ateratakoak dira, baina zati batzuk soilik dira, ez osoa. Unitate osoa 12 saiotan egiten du berak, saio bakoitzeko helburuak eta materiala finkaturik dituelarik. Adibidez:

1. Saioa (Nafarroa - Eguraldiak - Mahastiak)

- 1., 2., 3. eta 4. orrialdeak.

- Taldeka

- Helburuak:

\* Taldeko lana egitea

\* Gauzen globalizazioetaz ohartzea: mahastia-eguraldia-geografia.

\* Euskal Herriko klimen errebasoa egitea.

\* Nafarroaz pixka bat aritzea.

2. Saioa (Mahastien historia)

- Taldeka.

- Helburuak: ekintza bat ez isolatzea, gauza guztiak beraien artean duten loturaz jabetzea: historia-natura.

5. Saioa (Mahastiak hilabetez hilabete)

- Talde handia.

- Azalpena.

- Helburua: edukiak bereganatzea.

9. Saioa (Hartzidura - Jogurtaren prozesua).

- Talde txikia, handia, bakarka...

- Helburuak:

\* Teoria bizitza errealerara pasatzea: jogurta nola egiten den ikastea.

\* Prozedura baten ordena eramaten jakitea.

\* Talde lanak esperientzia batean duen garrantziaz ohartzea.

\* Mikroskopioa erabiltzea.

11. Saioa (Mahaingurua)

- Talde handia

- Helburuak:

\* Alkoholak gure jaietan duen eraginaz ohartzea.

\* Alkoholaren kantitateetaz aritzea.

\* Bakoitzak bere iritzia botatzen ikastea.

\* Eztabaida bat aurrera eramatea.



## GUTUNAK

Zuen kezka,  
iritziak,  
desadostasunak,  
itxaropenak,...  
adierazteko  
lekua izan nahi  
du.



# Berriak

Bidal itzazu zure burutapenak irakasle  
euskaldunon aldizkarira

AZAROA



## “Hezkidetzan oinarrituta hezi” jardunaldia

Joan zen urriaren 8an Gasteizko Europan Jauregian Emakundek antolaturiko “Hezkidetzan oinarrituta hezi” jardunaldia burutu zen. Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleei zuzendutako honetan, Begoña Martinezek estereotipoen izaeraz eta genero-estereotipoek gizakiaren garapenean duten eraginaz mintzatu zen lehendabizi, balore eta estereotipoen inguruan eskolak jokatzen duen paperaz hitz egiten jarraitzeko.

Ondoren, Raket Raposok eta Beatriz Ugartek gaztelanian eta euskarari, beste hizkuntzetan bezala, sortzen diren hizkera maskulinoa eta femeninoaren inguruan aritu ziren.

Leire Diegok berriz, haur literatura aztertu zuen eta ipuin mota ugariaren istorietan nahiz ilustrazioetan azaltzen diren eredu sexista garbi askoak azaldu zituen.

Kristina Elorza, Imanol Ziarso, Mercedes Revilla eta Isabel San Juanen esku egon zen alde praktikoa. Lehenengo biek “Jolas librea”ren inguruan jardun zuten. Beste bi irakaslek ikastetxean aurrera eramaten duten hezkidetzaren arloko proiektua azalduz amaiera eman zioten jardunaldiari.

## Ikastaroak

### Musika irakasle euskaldunon lehenengo topaketa (99-1-22)

#### “Euskal pedagogia eta curriculum musikalaren inguruan”

##### Goizeko ekitaldia

9.30etan

- Parte hartzaileei harrera: material eta arratsaldean erabiliko den galdera xortaren banaketa.

9.45etan

- Eujenio Arraizak eginda, Euskal Kantuzaleen Elkarte eta Topaketaren aurkezpen ofiziala.

10.00etan

- Denise Olhagarai (musika irakaslea Donibane Garaziko “La citadelle” eskola publikoan): “Musika irakaskuntza Ipar Euskal Herriko eskola publikoetan” (15 minutu).

- Mañolo tradizioko musikaren irakaskuntzari buruz arituko da (15 minutu eta bukaeran 10 minutu galderak egiteko).

10.45etan

- Pantxika Solorzano (musika irakaslea Ipar Euskal Herriko ikastoletan): “Musika irakaskuntza Ipar Euskal Herriko haur eskoletan” (20 minutu eta bukaeran 10 minutu galderak egiteko).

11.15etan

- Kafe ordua.

##### Hitzaldiak

**Gaia:** “Euskal hiritarren egoera musikalaren inguruan”.

Aurkezleek hurrengo bi proposamenetan islatzen diren ikuspegiak aipatuko dituzte: helburua musikaz kanpoko edo musika baliabide gisatzat jotzen duena, lehenengo biak; eta helburua musikan zentratutako, hirugarrena.

11.45etan

- Mixel Etxekopare (euskarari irakaslea eta musikaria): “Musikaren erabilpena euskararen irakaskuntzan”. Zuberoraino burutzen ari den esperientziari buruzko informazioa lutzatuko du. (15 minutu eta bukaeran 5-10 minutu galderak egiteko).

12.05ean

- Mikel Legorburu: “Mugimendua musika irakaskuntzan”. (15 minutu eta bukaeran 5-10 minutu galderak egiteko).

12.30etan

- Aznarezen taldeko kide batek haren filosofia eta ildo pedagogiko nagusia agertuko du. (20 minutu eta bukaeran 10 minutu galderak egiteko).

13.00etan

- Goizeko egitarauaren bukaera.

##### Arratsaldeko ekitaldia

**Gaia:** Curriculuma eta musika irakaskuntzaren egoera

15.30etan

- Landuko diren puntuak gehi antolakuntzari buruzko argibideak.

15.35etan

- Larritz Burgaleta eta Maite Zornotza: hiztegi tekniko musikalaren egoeraz eta haien lanari buruz arituko dira.

15.45etan

- “Zer da curriculum?” Jose Inazio Lopez de Luzuriagak azalduta. (20 minutu eta bukaeran 5-10 minutu galderak egiteko).

16.15etan

- Lan taldeak osatuko dira. Lan talde guztiek galdera multzo bati erantzun beharko die (taldekide guztiak banan banan aintzakotzat hartu arren, erantzunak taldekoak izango dira eta hautatutako bozeramaileak agertuko ditu).

17.00etan

- Kafe ordua

17.15

- Erantzunei buruzko amankomuneko gogoeta gaiez gai.

18.15ean

- Proposamenak eta egiteko lanak.

18.30etan

- Bukaera

# ARGITALPENAK



## TXIRRI, MIRRI ETA TXIRIBITON KOMIKI BILDUMA

Sir Endikaren  
eskopeta  
Ibaizabal  
argitaletxea

Ibaizabal argitaletxeak "Txirri, Mirri eta Txiribiton" komiki bildumako bigarren alea kaleratu du. "Sir Endikaren eskopeta" izenburua du komiki honek. Hiru pailazoen zoon bizitzen dituzten komeriak dira ardatz komiki-ipuina honetan. Gidoia Joxean Muñozek egin du eta marrazkiak, berriz, Jose Angel Lopetegui eta Aintzane Domenech-en artean egin dituzte.

## "KANTA TXIKIAK"

15 abesti  
Hirusta  
Records



Hondarribiko Josune Lopez eta Anutxi Lazkanotegi irakasleen ekimenez kaleratu du Hirusta Records-ek "kanta txikiak" CDa. Haur txikiekin lana egiten duten bi andereño hauek beti abesti berdinak irakasten eta entzuten aspertuta zeuden eta berriak asmatu dituzte. Eguneroko gauza eta ekintzetan oinarritutako abesti motzak dira, batzuk biziagoak eta beste batzuk lasaiagoak.

## EUSKAL ZIBILIZAZIOA

Gure herriaren  
sustraien bila

Alfontso Mtz. Lizarduikoa  
Gaiak argitaldaria



Oinarrizko liburutegiaren barruan ardaratu du Gaiak argitaldaria liburua hau. Euskal Herriaren aurrehistorian sartzen da. Garai haietan Europa osoan (eta Afrikan ere) euskal erroak izan zituen kontinente linguistikoa eta kulturalaz hitz egiten du liburua. Denbora hartatik zuzenean heldu zaizkigun gure berezko baloreak ere aztertzen ditu.


## DEMOKRAZIAREN HISTORIA

Oinarrizko  
liburutegia  
Gaiak  
argitaldaria



Liburu honetan sistema demokratikoaren prozesu eta garapen luzearen berri ematen da. Alde batetik, egun demokrazia kontzeptuaz ulertzen duguna mendeetan zehar ezagutu dituen aldaketen emaitza dela ulertarazi nahi du. Eta bestetik, hitzaren esanahia ez dela finkoa eta aldaezina.

## Gitarraz



## GITARRAZ

Gitarra jotzeko ikasleen liburua  
Xabier Zabala  
Hik Hasi aldizkariak argitaratua

Liburu honetan gitarraz jotzeko 49 abesti bildu ditu Xabier Zabala Donostiako Ekintza ikastolako irakasleak. Aurreko urtean bilduma honen hasiera izan zen Txirulaz liburuaren arrakasta ikusita, bigarren hau prestatzera animatu da egilea. Aurrekoan bezala, euskal kanta tradizionalekin batera, gaur egun modan dauden hainbat abesti sartu du. Abesti bakoitzak ber hitzak, notak eta akordeak ditu. Gainera, oraingoan liburua kolorez argitaratu dute umeentzat askoz ere erakargarriagoa delarik.

## Nafarroa osoan euskaraz ikasteko eskubidearen alde

Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuak, lehenik eta behin guraso nahiz irakasleen indarrari esker, eta UPN ez gainerrako partidu guzien mozio parlamentario baten ondorioz, bikoiztu behar izan ditu D ereduko lerroak San Frantzisko eta Errotxapeako eskoletan, hala nola Batxilergo artistikoa euskaraz martxan jarri ere. Hala eta guztiz, Parlamentuak berriro horrela exijitu badio ere, Hezkuntza Departamentuak ez du zabaldu D eredua Ermitagaña, Donibane eta Mendebaldeko auzotarako (40.000 biztanle) D eredua zabaldu.

Lorpenak aipatu ondoren, ezin da inola ere esan Departamentuaren euskararekiko jarrera aldatu denik. Departamentuaren helburua euskal irakaskuntza publikoa frenatzea da eta Marcotegik eta Arellanok siste-

matikoki segitzen dute oztopo politika honekin irakaskuntza maila guzietan. Zabaltzen doan sektore bakarraren (publikoa euskaraz) zapaltze honek irakaskuntza pribatua ekonomikoki bultzatzen duten politikak babesten du..

Zapalkundearen adibide batzuk:

1. a- Haurtzaindegietako eskaintza murrizta. Etapa hau ezinbestekoa da murgiltze prozesua behar bezala burutzeko.

b- Hezkuntza Departamentuak ez du inoiz bere gain hartu etapa hau, Giza Ongizatea eta Udalen esku uzten duelarik.

c- Eskola Publikoan 2 urteko umeak onartzea debekatzen da, eta pribatuan berriz, onartu egiten da.

d- D ereduko gelak gainezka dauden bitartean, G ereduko talde tikiak mantendu egiten dira, murgiltze prozesuak irakaslegoari eskatzen dion ahalegina kontuan izan gabe.

2. Nafarroako biztanleriaren erdiari ezinezkoa zaio euskaraz ikastea eta aldi berean zenbait lanpostu betetzeko eskatu egiten da euskaldun izatea. A ereduak zonalde ez euskaldunetan duen eskaerak erakusten du zonaldean dagoen euskararen aldeko jarrera.

3. a- DBHko ordutegien Dekretoa, D ereduko ikasleen aurkako eraso garbi garbia da.

b- Gela berezien sorrera, LOGSEren interpretaziorik atzerakoiena dena.

c-DBHko ikasleriaren gutxiespena; hauen eskubide eta betebeharraren Dekretuak debekatzen die asanbladetan gai estraeskolaretaz mintzatzea.

4. Euskal modulo hezgarrien eskaintza eskasa. Arellanoren adierazpenak oso garbiak izan dira beti: euskarak ez du lanerako balio, etxean erabili behar da.

5. Irakasleriarentzako formazio teknikorik eza euskaraz; gazteleraz-

koa ezin da egokitu haien beharretara.

6. Irakasleriarentzako birziklatze plan on baten falta.

7. Hezkuntza Departamentuak euskaldunekiko erakusten duen errespetu falta izugarria.

Beste aldetik, Marcotegui eta Arellanok beraiek inork baino hobeki dakiten prepotentziaz eta harrokeriaz behin eta berriz Nafarroako Hezkuntza Sistemari normaltasuna nagusi dela saltzen saiatzen dira eta kezu gaudenok lau katu besterik ez garelako diote. Eskolaratu gabeko 17 hurrek ez dute kontaktzen.

Behin eta berriz, lehen aipatutako harrokeriarengatik erakunde sozialak ez entzutearen jarrera nagusitzen da Departamentuan, erabakiak abalatzeko tresnak bezala erabiliak izaten direlarik askotan eta inoiz ere ez eztabaidatzeko garaian. Honi gehitu behar zaio Nafarroako Kontseilu Eskolarrak duen Baliotasun urria, kontsultako erakundea izanik eta nola dagoen osatuta ikusiz gero.

Euskal irakaskuntzarekiko jarrera oztopatzaileak, Marcotegui eta Arellanoren prepotentzian oinarriturik Parlamentuak bi alditan (ekainean eta irailean) eskatutako J.M<sup>a</sup> Iribarren eskolan D ereduaren irekierari muzin egitea ere dauka ondorio.

Honegatik eta nahiz eta Parlamentuan lortutako legitimitatea izan 17 haur kalean daude beren ingurunean eta ez beste edozein auzotan euskaraz ikastea nahi dutelako.

**Euskal irakaskuntza publikoaren zabalpenaren alde.**

**Nafarroa osoan euskaraz ikasteko eskubidearen alde.**

**Sortzen Nafarroa**

# Haur-jolasen abestiak II

## Euskaraz jolasten jarrai dezagun

**J**olastokietan eta kaleko jolasetan euskaraz aritzeko iaz argitaratu genituen musika-zinta eta CDk izan zuten harrera ona ikusirik, aurten ere beste ahalegin bat egitera animatu gara.

Lehenengo grabaziorako ikasleak HIK HASI proiektuaren inguruko irakasleek prestatu bazituzten ere, bigarren honetan ahalik eta partehartze handiena gerta zedin bitartekoak jartzen ahalegindu gara. Izan ere, grabazio baterako ematen den prozesua oso interesgarria eta aberatsa baita ikasleentzat.

Euskal Herria bere osotasunean kontuan hartuz, herrialde ezberdinetako ikasleek hartu dute parte. Lehenengo diska interes handiz hartu zuten zenbait ikastetxekoekin ere harremanetan jarri gara, baina arrazoi desberdinak direla medio, ezinezkoa egin zaie parte hartzea. Aipatzearen, musikako irakaslea ikastetxera aurten etorri berria dela eta ikasleak ez dituela ezagutzen izan da adierazi zaigun arrazoi nagusia.

HIK HASIk, ohi duen bezala, oreka bilatzen ahalegin berezia egin du. Honela, parte hartu dutenen artean hauxe izan da herrialdeka eman den banaketa: Araba 2, Bizkaia 3, Gipuzkoa 5, Iparraldea 1 eta Nafarroa 2.

### Edukia

Lehenengo lanean sokasaltokoak, behatz-jolasak, zotz egitekoak, ziburuan aritzekoak, urtebetetzea ospatzekoak, aulki-jolasa, asmakizun-jolasak, jira-birakoak, barraskiloa, gaileta eta



abar agertzen bagenituen; bigarren honetan, aurreko batzuk indartzeaz gain, ohartu garen hutsuneak betetzen ahalegindu gara. Hau da, ikasleak maiz aritzen diren jolasak jaso eta gure hizkuntzan eredu batzuk eskaini. Txalotan eta gomatan aritzen diren jolas horiek dira horren eredu. Hauez gain, aho-trebaketak, bidai-jolasak eta abestiak, erritmoa lantzekoak, imitazio jolasak, dantzakoak, talde-jolasak, txakolinke, mandoka eta abar.

Guztira 23 abesti dira gidoitxoan sartuak Euskal Herrian zehar egiten ari diren ibilalditxo batean oinarrituz. "Takolo, Pirritx eta Porrotx" pailazoak gaztetxo talde batekin jolasak ezagutzen doazen une berean, hiri nagusietako festetaz jabetzen dira: Marijaia Bilbon, Zeledon Gasteizen, San Fermín Iruñean, Maskaradak Iparraldean eta Danborrada Donostian.

Jolas-abestien aukeraketaz Josi Oiarbide irakaslea arduratu da, zenbait hitz berak sortu dituelarik. Musika-





tzeaz, aldiz, Xabier Zabala musika irakaslea arduratu da, abesti askoren musika sortuz eta gainontzekoen moldaketa lana eginez. Abesti guztietan musika alaiak, erritmo bizikoak eta mugimenduzkoak konbinatu ditu.

Grabazioan 110 ikasle eta 15 irakasle aritu dira.

Jolas hauek guztiak praktikan jartzeko laguntzatxoa eskaini nahian, zinta eta CDn kuadernotxoa doa. Eta horrez gain, HIK HASIren 33. zenbakian argitaratuko dugun Gehigarrian abestien hitzak, jolasen argazki eta azalpenak eta "Takolo, Pirritx eta Porrotx" pailazoen ikasleekin izan dituzten elkarrizketak agertuko ditugu. Hau da, gidoi eta eduki osoa.

### Nola lan dezakegu

- Abesti eta elkarrizketak entzun eta ulertzeko saioak egin.

- Erritmoak landu.

- Nola jolasten den ikasi.

- Jolasak nola egoki ditzakegun aztertu.

- Antzeztu: hiruzpalau abesti-jolas aukeratu, pailazoen ematen diren elkarrizketak egokitu eta jolasak eginez antzezteko aproposak izan daitezke... Pertsonaiak: Pirritx, Porrotx, Takolo, haur 1, haur 2, haur 3...

Hauxe da gure eskaintza. Aurrekoak izan zuen erantzun ona jasoko duela-koan gaude, eta horretarako, jaso ezazue gure gonbitea.



## Picassoren "Guernica" zeramikaz

Zarauzko Ikastolako DBHko artista gazteek beraien artelana aurkeztu digute

**H**amaika ahalegin egiten dugu gure ikasleen adimenean ezagutzak txertatzeko edo haien eskura trebetasun desberdinak jartzeko. Urteen poderioz ahazten doaz edo teknikaren zurrunbilo eroan oroimenaren zokoren batera jaurtikitzen dira.

Baina eguneroko jardunaren jardunez gure ikasleen bihotzetan pausatuz doaz behar bada inkontzienteki ereiten ari garena. Maitasun irakaspenak edo maitasunaren irakaspenak ote? Eta hauek ahantz ezinak dira.

Bitzita den azterketa gogor eta ederrean azalerazten dira inongo liburuetan aurkitu ezin diren eta metodologiek nola bideratu eskaintzen ez dituztenak.

Honen guztiaren lekuko izan ginen. Jose Luis Aranguren "Maixu Pepe"

ikasturte berriaren hasieran ezustean hil zen.

Omenaldi xume bezain hunkigarri eta zoragarria eskaini nahi izan zioten ikastolan: ikasleek txirula, txistu eta gitarrez abesti ezberdinak eskaini zituzten, Arestiren "Nire aitaren etxea" poema errezzitatu zuten eta lan-kideek osatzen zuten abesbatz ez-ohikoak Sorozabalen oratorioaren bertsio berria eskaini zuten, Josu Txapartegi irakaslearen zuzendaritzapean. Zarauzko alkateak ere bat egin nahi izan zuten





tuz, eta lan hori ere bidali zigun. Ikasleek garrantzi handiko zerbait egiten ari zirenen kontzientzia izan dute.

### **Beraz, gustura aritu dira.**

Bai, oso gustura. Behin bolumena emanda "guatxe" teknikarekin pintatu genuen, bospasei tonu ezberdin erabiliz. Gero, zati bakoitza askatu, labean sartu eta beiratzatu egin genuen.

### **Arazoren bat izan duzue...**

Murala horman ezartzen ari zirela zati bat erori zitzaien eta puskatu egin zen. Presaka ibili behar izan dugu hautsitakoa berriro egiten, zati horren prozesu osoa berreginez.

Imanol Urbietta musikaria han bertan zen eta pozik agertu zen ikasleek egin-dako lanaz eta jaialdiaren ikusgarritasunaz.

eta bere hitzen ondoren dantzariak eskaini zuten Agurrarekin ikasleek zeramikaz egin zuten muralaren inaugurazioari ekin zitzaion.

Hau guztia Zarautzen gertatu zen, Salbatore Mitxelena ikastolan eta ereindako maitasunaren oroigarri Gernikako Arbolaren kimu bat handituz doa ikastolako lurretan.

### **Murala**

Ekitaldiaren ardatz nagusia Picassoren "Guernica" zeramikan berregitea eta honen inaugurazioa izan zen.

La mardul honen arduraduna den Paco Serras, DBHko plastikako irakaslearekin hitz egin dugu eta berak eman dizkigu zehaztapenak.

### **Nola burutu duzue "Guernica" lan hau?**

DBHko bigarren mailako ikasle guztiek hartu dute parte. Mural handia da, 2,5m x 1,3m neurtzen du eta jatorrizko lanaren porzentaia errespetatu dugu. Zeramika lana izanik hirugarren dimentsioa ere eman diogu.

Hasteko, buztinean 50 zati berdinekin egin genituen eta zati horien gainean burutu dugu zeramika lana.

### **Zailtasunik izan al duzue?**

Lanaren zailtasun handiena hirugarren dimentsioa ematea izan da, elementu bakoitzari dagokion bolumena finkatzea. Hau guztia burutzeko aste-beteko goizak libre hartu genituen.

Jorge Oteiza, behin baino gehiagotan izan da gure lana ikusten eta aholkuak ere eman dizkigu. Jorgek berak koadroari buruz lantxo bat egin du, bere ikuspegitik Picassoren obra interpreta-





## Montevideoko "Gure haurrak" programa



Izaskun MADARIAGA IRAGORRI  
Iturburu Haur Eskolako Irakaslea

**O** iartzungo Udalaren laguntzaz Hego Ameriketara egindako bidaiari gizarte bizi batekin egin genuen topo, gizarte konprometitu batekin, etorkizuna hobetzeko programa iraultzaileak diseinatu eta gauzatzeko ahaleginetan konprometitutako giza talde sakonekin. Montevideon ezagututakoa izan genuen hauetako bat.

Montevideoko egoera soziala egunetik egunera aldatzen ari da, gero eta pobregoa, gero eta gehiago ugaritzen marjinatutako zonaldeak. Egun 1.300.000 biztanle (400.000 familia gutxi gora behera) ditu, Uruguay osoko %44a. Hazkuntza tasa txikia dute

eta jaiotzen diren haurren ja erdiak, zonalde marjinatu eta pobreetan jaiotzen direnak dira. Egoera honek begibistako arazoa planteatzen du, alegia, populazio berrikuntza gutxituen esparruetatik sortuko dela, horrek suposatzen duen ondorio guztiek: amatasun goiztiarra, heziketa maila eskasa, isolamendu soziala, haurren kale-lana orokortzea, eta abar. Arazoa larria benetan eta etorkizunerako kezka garria.

1990. urtean Udala alderdi ezkertiarak bereganatu zuen. Proiektu aurrerakoiak zituzten, boterea deszentralizatu, gizarte antolaketa eta kudeaketan protagonismoa gizarte zibilari eman, herritar guztientzat bizimaila duina

bideratzeko integrazio programak martxan jarri, eta abar. Haurtzaroi zegoenez egoera aztertzen hasi ziren. Haurren garapenean arazo larriak antzeman zituzten, ahultasun bio-psyko-sozialen eraginez sortutakoak, ondorioak, eskolarizazioan eta gizarte bizitzan orohar isladatzen zirenak. Arrisku egoera honetan, inongo heziketa programa jasotzeko aukerarik gabe 93.000 bat haur ttiki zeudela estimatua zegoen. Hemendik sortuzen "Gure Haurrak" programa. Auzo pobreetara zuzendutako heziketa proiektua, auzokideek kudeatu eta administrazioarekin bat eginik aurrera eramaten dutena.

Esan beharra dago egituraketa admi-





nistratiboa benetan berezia dela. Montevideo osoa 18 Auzo Komunalean banatua dago. Zerbitzu eta administrazio eginkizunen deskonzentrazioa lortzea du helburu, auzokideen beharrei hobeto eta gertuagotik erantzun ahal izatearekin batera. Zona bakoitzean ardura politikoa duen Batzorde bat dago, bere esku dagolarik auzoko planen antolaketa, zuzendaritza eta kontrola. Bestalde Auzokide Kontseilu batek gorpuzten du Batzordearen lana, beharrak identifikatuz, lehentasunak ezarritik eta era berean egitasmoen gauzatzea kontrolatuz. Boterea gizarte zibilari pasa diote maila batean, honek suposatzen duen partehartze konprometituekin.

“Gure haurrak” programarako sortu diren zentruak, talde hauetatik bideratu dira. Proiektu honetan Udalak hartzen du parte baina beste talde eta Erakunde esparru zabal batekin hitzartuta:

Auzokide Komunitate Antolatua  
UNICEF  
O.R.T. (Suediar enpresa)  
Unibertsitatea  
Erakunde ez Gubernamentalak

Bere jarduerak arlo ezberdinak hartzen ditu kontuan:

Haurren garapen integrala  
Irakasleen prestakuntza  
Elkar trukaketarako tailerrak  
Seme-alabentzako aholkularitza

### 6 hilabete - 5 urte bitarteko haurren heziketarako ikastetxeak

Pedagogiaren ikuspuntutik antolatzen dira jarduerak baina beste beharrei ere leku eginez, hara nola nutrizio beharrak, mediku beharrak edota osasun behar xumeenak (hilea moztea esateko). Psikomotrizitate programak oso errotuak daude eta baita musika heziketari lotutakoak ere. Komunitateak 16 ikastetxe ditu. Ez du betetzen dagoen behar guztia eta beste 16 ikastetxe herrikoiekin beka sistema hitzartuta dauka. Ikastetxeei laguntzen 4 koordinatzaile espezializatuak dituzte.

Eskola hauek 8 orduko eskaintza egiten dute. Hiru irakasle mota dituzte: Maisu-maistrak, hezitzaileak eta sukaldeko hezitzaileak. Hauetatik gain musika eta psikomotrizitate espezialisten laguntza izaten dute. Irakasleak auzokideen artean hautatzen dira, profil egokia dutenen artean, sozial konpromezu handiena dutenak aukeratuz.

Langileak Auzoko Kontseiluak kontratatzen ditu. Talde honen gain dago ikastetxeko funtzionamendu eta kudeaketa guztia. Udalaren finantzaketak behar guztiak betetzen ez dituzenez, bolondres asko erabili beharrean aurkitzen dira. (Garbitasuna eta gauzaintza adibidez, gurasoek txandatu egiten dituzte).

Haurrak gozo ikusten ziren, baliabide pobreak bainan alai, pozik. Guraso-

ak eskolan, giro ona, beharrak aseak, beren eskubideak babestuak. Beraien zat aberasgarria zalantzarik gabe.

Irakasleen prestakuntza asko lantzen da. Hilean behin eskola itxi eta formazioarako izaten dute, bertan pertsona guztiak hartzen dutelarik parte: maisu-maistrek, hezitzaileek eta sukaldari hezitzaileek. Prestaketarako irakasleen arteko hausnarketa, elkartrukaketa, eta abarrez gain, koordinatzaile eta espezialisten (psikomotrizitate irakaslea, musikaria, psikologoa, sendagilea...) laguntzaz baliatzen dira.


Gurasoen prestakuntza kontuan hartzen den beste esparrua da (aholkularitza adibidez) eta hauekin batera baita auzokideen prestakuntza ere.

Erantzukizunaren aldetik eskola hauek gureak baino, osatuagoak direla esan daiteke, beharrak gureak baino larriagoak eta zerbitzuak eskasagoak direlako seguru aski, baina edozein modutara, hartu duten papera interesgarria dela iruditzen zait, haurren eskola-behar soilak gainditu eta auzoko bizitzaren aglutinatzaile bihurtu dira.

Proiektuak oso herrikoiak direla konprobatu ahal izan genuen. Auzokideen partehartzea asko sumatzen da, zenbateko ilusioa jartzen duten, nolako harremana duten beraien eta eskolaren artean, nola azaltzen dizuten beren proiektua, zeinen harro sentitzen diren... Gure 70eko garai berberak berbizitu arazi zidaten eta zentzu horretan nostalgia piztu ere bai.

Gizarte erantzukizuna guztiona dela sinestea aberatsa da herri dinamikarako. Jarraitzerik izango al du? Momentuz militantzi animoarekin ari dira lanean baina estrukturak bere arriskuak ditu eta jadanik antzematen dira: borondatezko lana dela, langileen nagusi laborala dela... Proiektua hedatzen eta formalago bihurtzen doan neurrian, eskuzabaltasuna noraino iraungo duen ezin jakin. Nik, dena den, bizitza luzea opa diet, merezi du eta.

# Gitarra jotzeko ikasleen liburua



**hik hasi**

Tel. 943-371545

49 abesti  
ezagunak  
pentagrama,  
akorde eta  
abestien hitzez  
osatua.

108 orrialde.

1.800 pezeta/72 libera

*Norbanako harpidedunek 1.000 pezeta/40 libera*


## Gitarraz



10 ale baino gehiago  
eskatuz gero  
beherapen handiak

# EUSKARAZ JOLASTEKO

Haur-jolasen  
23 abesti jasoko duten  
musika-zinta eta konpak diska  
kaleratuko ditugu



Durangoko Azokan  
Salgai